**donostiakultura.com**
San Sebastián, ciudad de la cultura

# 2009 Memoria




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

# Aurkibidea


3 **Donostia Kultura**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481150 Fax: 943 483900

7 **Komunikazioa eta Irudia**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481161 Fax: 943 481969

**EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK**

9 **Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinar Errepublika, 2
Tel.: 943 481160 Fax: 943 481969

11 **San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza
(behin-behineko helbidea: Andereño Elbira Zipitria, 1)
Tel.: 943 481580 Fax: 943 481581

14 **Antzoki Zaharra**
Kale Nagusia, 3
Tel.: 943 481170 Fax: 943 481969

15 **Kultur Etxeak**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481159 Fax: 943 481190

17 **Casares-Tomasene Kultur Etxea**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 Fax: 943 354046

18 **Altza Kultur Etxea**
Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 Fax: 943 354046

19 **Egia Kultur Etxea**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 Fax: 943 287219

20 **Ernest Lluch Kultur Etxea**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919

21 **Larrotxene Kultur Etxea**
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 Fax: 943 292746

22 **Intxaurrondo Berri Kultur Etxea**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 Fax: 943 275241

23 **Loiola Kultur Etxea**
Aralar, 17
Tel.: 943 454605 Fax: 943 473498

24 **Lugaritz Kultur Etxea**
Heriz, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 Fax: 943 310782

25 **Okendo Kultur Etxea**
Nafarroa Etorbidea, 7
Tel: 943 290672 Fax: 943 290721

26 **Liburutegiak**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481749 Fax: 943 431895
**Unitate Tekniko Zentrala**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481162 Fax: 943 431895
**Liburutegi Nagusia**
Alderdi Eder
Tel.: 943 481488 Fax: 943 481490
**Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa**
Fermín Calbetón, 25
Tel. 943 481999 Fax 943 481195

**PROGRAMAZIOA**

32 **Musika**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

33 **Antzerkia eta Dantza**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 483860 Fax: 943 481969

34 **Zinea eta Bideoa**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

35 **Festak**
Konstituzio plaza, 1
Tel.: 943 481168 Fax: 943 481177

**JAIALDIAK**

41 **Heineken Jazzaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

42 **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

43 **Giza Eskubideen Zinemaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

44 **dFERIA**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 483860 Fax: 943 481969

46 **Literaktum**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481488 Fax: 943 481490

# Donostia Kultura

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Bokalak:

PSE-EE
Odón Elorza
Denis Itxaso
Mª Jesús Muñoz
Marisol Garmendia
Maravillas Dafauces

PP:
José Luis Arrue
Mª José Usandizaga

EAJ-PNV:
Mertxe Garmendia

EB-B-A:
Juan José Pérez

EA:
Ricardo Burutaran

## ZUZENDARITZA TALDEA

| | |
|---|---|
| Zuzendari-gerentea: | Antton Azpitarte |
| Administrazioa eta Kudeaketa: | Rebeka Gallastegi |
| Komunikazioa eta Irudia: | Jaione Askasibar |
| Produkzioa: | José Ignacio Abanda |
| San Telmo Museoa: | Susana Soto |
| Zinema: | José Luis Rebordinos |
| Musika: | Miguel Martín |
| Antzerkia eta Dantza: | Norka Chiapuso |
| Festak: | Mª Jesús Torres |
| Liburutegiak: | Arantza Urkia |
| Kultur Etxeak: | Patxi Presa |



## DATU EKONOMIKOAK

| PROGRAMA | GASTUAK | SARRERAK |
|---|---|---|
| Administrazioa eta Kudeaketa | 2.551.473,86 | 1.021.705,76 |
| Komunikazio eta Irudia | 942.096,29 | 289.958,42 |
| Liburutegiak | 1.876.036,94 | 93.394,21 |
| Kultur Etxeak | 5.770.470,67 | 418.910,56 |
| San Telmo Museoa | 1.737.889,10 | 97.847,34 |
| Victoria Eugenia Antzokia | 1.754.402,12 | 445.106,80 |
| Antzoki Zaharra | 607.073,15 | 48.705,68 |
| Antzerki eta Dantza | 1.303.160,17 | 665.279,25 |
| dFERIA | 330.805,45 | 287.789,90 |
| Zinema | 410.262,84 | 182.209,72 |
| Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astea | 174.671,23 | 248.096,26 |
| Festak | 3.215.222,19 | 772.819,30 |
| Musika | 1.004.206,33 | 505.850,83 |
| Jazzaldia | 1.442.651,08 | 1.312.018,10 |
| **Gastu eta sarrera arrunten exekuzioa** | **23.120.421,42** | **6.389.692,13** |
| **Udalaren ekarpena gastu arruntetarako** | | **16.767.837,00** |
| **Sumak** | **23.120.421,42** | **23.157.529,13** |
| **Superhabita** | **37.107,71** | |
| **Udalaren ekarpena inbertsioetarako** | | **2.781.000,00** |
| **Exekutatutako Inbertsioak** | **1.268.728,46** | |
| **Hurrengo urterako pasatako inbertsioak** | **1.512.271,54** | |
| **Sumak** | **2.781.000,00** | **2.781.000,00** |
| **Guztira** | **25.901.421,42** | **25.938.529,13** |

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

**301 dirulaguntza**
**533.567,20 euro banatu dira kultur eta jai elkarteen artean**

# Donostia Kultura

**2009a aldaketa-urtea izan da Donostia Kulturarentzat**

Izaera juridiko berria izen bereko Enpresa Erakunde Publiko gisa sendotu ondoren, eta berari Victoria Eugenia Antzokia eta San Telmo Museoa sozietate anonimoak erantsi zaizkiolarik, **Donostia Kulturak estrategia-gogoetarako prozesu etengabeari ekin dio.** Helburua Donostiaren eta Donostiako kultura hiriaren garapen eta proiekziorako eragile nagusien artean kokatzea da, kudeatzen dituen ekipamendu, kultura-zerbitzu eta ikuskizun-eskaintzen bitartez.



Helburu nagusi horretatik zenbait gogoeta, erronka eta jarduera-ildo sortu dira Donostia Kulturarentzat, eta batzuei aurten bertan ekin diegu geroko gerotan geratu gabe. Halaxe, esate baterako, **erakundearen irudi-aldaketa** eta —horrekin batera— norabide-aldaketa, batik bat plataforma digitaletan oinarrituriko komunikazio-estrategia berri baterantz.



Iazko azaroaren 17an aurkeztu zen irudi berria jendaurreko ekitaldi batean: webgunearen helbidea —aurki hiriaren kultura-atari izango dena— hartu zen zuzen-zuzenean entitatearen beraren logotipotzat. donostiakultura.com-ek, hartara, programazioaren eta kultura eta festa-zerbitzuen edukia eta agerbidea bateratu zituen. Idazkunak, gainera, azpimarratzen zuen Donostia Kulturak bere gain hartzen duela bateragune izatea hiriak egindako apustu irmoan, hots, Kultura garapen sozio-ekonomiko iraunkor, plural eta inguruaren aberasgarrirako ardatz eragilea izan dadila.



Aurkezpenak, hain zuzen, Donostia Kulturaren zuzendaritzan "haize berria" zebilela irudikatzeko balio izan zuen. Izan ere, hilabete batzuk lehenago beste aldaketa muntazko bat gertatu baitzen. Udaberrian iragarri zen ofizialki Donostia Kulturaren lehendakaritzan izandako ordezkapena: **Ramon Etxezarreta**k —erakundearen buru 14 urte eman eta gero— **Kultura eta Gazteria zinegotzi berria**ri, **Denis Itxaso**ri, utzi zion lekua. Horrekin batera, Patxi Presa pasatu zen Kultur Ekintzako unitatea zuzentzera, hiriko kultur etxeen sarea koordinatzeko arduraz.



Horiek ez dira izan mugarri bakarrak 2009an. Kultura-programa bat sortzen ere ikusi dugu; oraingoan, musika klasikokoa, **CLASSIC** jarri baita martxan —**Cultura Musical** elkartearekin lankidetzan—, oso asmo handiko musika-programa, **Victoria Eugenia Antzokia**ren arte-ildoak jorratu gabe zuen kultura-arlo bakarra betetzera etorri dena. Donostia Kulturaren helburua, proiektu horretan, musika klasikoa ahalik eta hiritar gehienei hurbiltzea da (horretarako aukera ezin hobea ematen digute erakundea kulturgune-sarearen bitartez hurbil izateak, adin eta zaletasun guztietarako programazio askotarikoak, eta bazkide eta, oro har, kulturzaleekin ditugun komunikazio-bideek), eta, horretarako, abonu merkeak eskaini dira. Donostiarrek eta bisitariek eskaintza berri horretaz gozatu ahal izango dute 2010etik aurrera.



**Ekipamenduak eta zerbitzuak**

Victoria Eugenia Antzokia, gure gune behinena San Telmo berrinauguratzeko zain gauden artean, sendotu egin da lehen mailako eszenatoki gisa. **109.000 ikusle** izan dira, **246 emanalditan**; horien artean, **48 antzezpen** eta **81 musika-saio** nabarmendu dira.

**San Telmo**k 2009an izan duen lan-ildo nagusia barne-lana izan da, jakina; museoa birgaitzeko eta handitzeko egitasmoan aurrera egitea. **Lanek** beren martxan jarraitu dute, eta **hilabete gutxi falta dira buka daitezen.** Lan horien martxan, **elizako margolanen** aurkikuntza garrantzitsua egin da; dirudienez XVI. mendearen azkenaldekoak dira, eta zaharberritu egin dira. ***Donostiari begira*** erakusketa **(Historiaren Etxea, Urgull)** hazi egin da bisitari-kopuruaren aldetik **(98.973 biztanle).**

**Kultur Etxeei** dagokienez, kultura ahalik eta hiritar gehienei hurbiltzeko baitaude Donostiako zazpi auzotan, 2009ko zenbakiak oso adierazgarriak dira.

693.339 erabiltzaile
Zerbitzuetan (liburutegia, ikasteko aretoak, KZgunea...)
59.102 erabiltzaile
Zerbitzu sektorialetan, Haurtxoko, Gazteleku, Plus 55...
182.962 partaide
programaturiko 2.554 jardueretan (hitzaldiak, ikuskizunak, eta abar)
4.771 matrikulatu
udako eta neguko ikastaroetan parte hartu dutenak
**938.059 erabilera**
**hiriko kultur etxeetan izan diren zerbitzu edo jarduerenak**

**Udal Liburutegiek** (9 kultur etxeetan eta Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian zein Fermin Calbetongo haur liburutegian dituzte zerbitzuak) **1.004.282** bisita izan zituzten. Nabarmentzekoa, denen artean, Alderdi Ederrekoa, 304.896 bisitari izan baitzituen. Gainera, **529.729 mailegu** egin ziren. **659 liburu elektroniko** katalogatu dira, eta **ordenagailu eramangarrien mailegu-zerbitzu berria** jarri da martxan














Alderdi Eder-en.

**Programazio-unitateak**

**Musika**n, ekonomia-egoera zailak hobetu egin du **sektore publikoaren eta pribatuaren arteko sinbiosia**, biak ere elkarren gero eta behar handiagoan izaki iragan hurbileko jarduera- eta bideragarritasun-mailei eusteko. Beharretik irabazia atera daiteke; izan ere, **handitu egin da** Donostia Kulturak programaturiko **kontzertu-kopurua**; batez ere, eragile pribatuekiko lankidetza izan denean ugaldu dira kontzertuak, eta horrek kudeaketa-formula batean sakontzeko bidea eman digu, arriskua banatuz eta artistak gure aretoetara duen irispidea hobetuz. Horren guztiaren ondoriorik hoberena: **ikus-entzuleen kopurua ez da urritu.**

Antzerkia eta Dantza unitateak antolaturiko ikuskizunen artean, **Animalario-CDN**ren ***Urtain***ek eta **Yllana**ren ***Pagagni***nik utzi dute aztarna nabaria. Garaile atera zen **Concha Velasco** (*La vida por delante*), bai eta **José María Flotats, José María Pou**... ere; konpainietan, **Els Joglars**, eta autoreen artean, **Alfonso Sastre**, besteak beste. Euskal eszenarik hoberenak ere leku nabarmena izan zuen: **Tanttaka, Kukai, Vaivén, Txalo, Hika**... Dantzan, nabarmentzekoa **Victoria Eugenia Antzokia**k **Malandain Ballet Biarritz**ekin batera sortutako **Mugaz gaindiko Koreografia Gunea**k Europatik jaso duen babesa.

**Lau atal**i begiratu die Donostia Kulturako **zine-programazioa**k. Nosferatu programazio egonkorra, urtean zehar programatzen diren saio bereziak (2009an: Kimuak, Koldo Zuazuak ekoitziriko film laburrak, Check Point Rock, etc.), **jaialdiak** eta **Tabakalerarekiko lankidetza.**

**Festak** unitateak arte-erronka bati eutsi dio: **Kontxako Emakumeentzako I. Bandera**ri buruzko argazki-erakusketa koordinatzea; eta, gainera, **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalaren 125. urteurrena** ospatu du, eta **Groseko Hungariako Kaldereroen Konpartsaren 25. urteurrena.** Orobat, **Orfeoi Donostiarraren Kontzertu Berezia** antolatu du Artzain Onaren Katedralean, Donostiak **2016**an Europako Kultura Hiriburu izateko aurkeztu duen hautagaitzari laguntzeko. Irailean, beste pauso bat eman da **Kontxako Emakumeentzako Bandera sendotzeko.**

**Jaialdiak**

dFERIA 09 irudimenez eta asmamenez moldatu da diru-egoera berrietara, feriaren oinarrizko jarduerei lehentasuna emanez osagarrien aurretik. **19 ikuskizun (20  funtzio)** programatu dira hiriko antzestokietan. Gutxi gorabehera, **5.346 lagunek** gozatu dute aretoetan programaturiko ikuskizunen batez; horiei **5.038 partaide** gehitu behar zaizkie jarduera lagungarrietan. Guztira, **10.854 lagun.** Ez da ahaztekoa **Itinerarte**ren bigarren edizioa, biran ziren zenbait konpainia latinoamerikar izan baitira.

**44. Heineken Jazzaldia**k izan dituen entzuleak, **bost egun** iraun arren —aurrekoetan baino bat gutxiago— eta 2008an baino % 12 kontzertu doako gutxiago izan arren, harrigarria bada ere, inoiz baino gehiago izan dira kopuru erlatiboetan, **27.000 ikus-entzule izan baitira eguneko.**

**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**ren XX. edizioak **28.414 ikus-entzule** biltzea lortu du. ***Lesbian Vampire Killers*** britainiar filmak irabazi zuen Ikus-entzuleen Saria: programazioan, generoak 2008. urtean eman dituen titulurik behinenetako batzuk nabarmendu ziren. Murrizketak izan arren, Asteak fantasiaz, beldurrez eta atseginez betetako 7 egun ekarri ditu berriz ere, eta Zineak —hizki larriz— edizio onenetariko bat izan du.

**Giza Eskubideen VII. Zinemaldia**ren barruan, **José Luis Borau**k Zinemaldiko **Giza Eskubideen Saria** jaso du. Giza eskubideek munduan jasaten dituzten erasoekin zerikusia zuten era guztietako gaiak ukitu dira hainbat filmen bitartez. Besteak beste, ***Ander, La caja de Pandora, La Forteresse, Johnny Mad Dog*** (Ikus-entzuleek Film Onenari emandako Sariaren irabazlea), ***Sicko, Teza, Trouble the Water*** eta ***El olvido.***

Iazko ekitaldian, gonbidatu gabeko protagonista izan da nonahi eta noiznahi aipatzen den krisia; eragina izan du erakundeen diru-ekarpenetan, eta dirua aurrezteko ahalegin handia egitera behartu du erakundea. Hala eta guztiz ere, eutsi egin zaio jardueren programazioari eta eskainitako zerbitzuen kalitateari; horretarako, irudimen handia erabili behar izan da, Kultura Bonua bezalako ekimenak asmatu dira —Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen urtearen hondarraldera, eta gure guneetan ezarri da— eta, batez ere, beste eragile publiko eta pribatuen laguntza izan dugu; horiei, gure eskerrik zinezkoenak beren laguntzarengatik, balantzea egiteko une honetan.

Orobat, ikus-entzuleen erantzuna ere eskertu nahi dugu, eta oso modu berezian Donostia Kulturaren bazkideena. Izan ere, 2009ko abenduaren 31n **59.521 lagun** ziren Gipuzkoako klubik handienaren **bazkide,** hots —ez da kasualitatea— kultura-klub baten bazkide.

Berriz ere Donostia Kulturak hirian duen eginkizunera itzuliz, ez dago esan beharrik egitasmo behinenarekin duen konpromisoa —**2016an Europako Kultura Hiriburu izateko Hautagaitza** lortzea— erabatekoa eta osozkoa dela. Erakunde hau jarduera askotan aritu da Hiriburutzarako Bulegoarekin batera programa edo irudi berezia lortzeko. Nabarmentzekoa Aste Nagusian Orfeoi Donostiarraren kontzertu bat antolatu izana Artzain Onaren katedralean.



# Irudi eta Komunikazioa

Gipuzkoako kultura eragile nagusi gisa, Donostia Kulturak gero eta ahalegin handiagoa egin du komunikazioaren aldetik. Prentsa idatzian agertutako ia **300 prentsaurrekoak** eta **5.295 inpaktuak** (gaikako 235 informazio dossier bildu ditugu) dira horren erakuslerik hoberena. 2009an, gainera, Donostia Kulturak irudi berria estreinatu du, bai eta garatzen hasi ere (datozen bi urteetan jarraituko da lan horretan). **donostiakultura.com,** hau da, eremu digitala, **erakundearen marka komertziala eta identifikatzaile bakar** bihurtu da, eta, batetik, hiriko kultura-sare osoaren aterki-markaren eginkizuna indartu du hala, eta, bestetik, modu nabarmenez bideratu du komunikazio-estrategia Sarean presentzia berria eta indartsua izate aldera.

**Komunikazio euskarriak**

| | |
|---|---|
| Prentsaurrekoak | 291 |
| Literatur aurkezpenak | 50 |
| Programak (liburuxkak, gonbidapenak, kartelak) | 300 |
| Prentsa oharrak | 231 |

**Publizitatea**

| | |
|---|---|
| Prentsa idatziko iragarkiak | 410 |
| Irratiko tarte laburrak | 110 |
| Telebistako tarte laburrak | 390 |

**Webguneak**
Trantsizio urtea izan da 2009 Donostia Kulturak interneten duen presentziari dagokionez; sare sozialak izan dira protagonista, zenbait blog eta facebook-eko kanal, twiter, flickr, etab. ireki baitira.

| | |
|---|---|
| **Donostia Kultura** | |
| 288.708 bisita | 901.008 bisitaturiko orriak |
| **Victoria Eugenia** | |
| 140.040 bisita | 599.196 bisitaturiko orriak |
| **San Telmo Museoa** | |
| 24.483 bisita | 179.634 bisitaturiko orriak |
| **Jazzaldia** | |
| 138.321 bisita | 628.321 bisitaturiko orriak |

Datu horien arabera, **donostiakultura.com** webak **hazkunde ikusgarria** izan du bisiten aldetik 2009an. Trafiko zuzena bisiten % 52 da, ia % 28 bilatzaileen bitartez datoz, eta beste % 20 erreferentziako webguneen bitartez. Hori guztia gure weben eguneratze etengabeari esker, 2010ari begira jardungo dugun kultura-atari behin betikoa datorren bitartean.

**Irudi berria**
Ezarri zenetik 18 urte iragan eta gero, Donostia Kulturaren logotipo zaharra, 1992an Art&Mañak sortua, irudi berri batek ordezkatu du, oraingoan Ytantos estudioaren eskutik. Horrek erakundeak oraingoz 2.0 komunikazioaren alde egindako apustu irmoa jartzen du agerian, betiere guztiz zabalik Informazioaren Teknologiei eta horiek dakartzaten komunikazio-bide aldakor eta berriei.

**Argitalpenak**
2009n Donostia Kulturak ***Bogada Berria*** argazki-bilduma argitaratu zuen, 2008an Kontxako Emakumeen Banderaren lehen edizioan parte hartu zuten emakumeei eskainia.

Zine Unitatetik, Nosferatu liburu bildumako beste bi ale argitaratu dira: ***Robert Rossen: su obra y su tiempo*** eta ***El thriller USA de los 70,*** Beldurrezko Asteak argitaraturiko ***Métal Hurlant*** liburuarekin eta **"2000 Maníacos"** fanzinearen beste ale berri batekin batera.








donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura






# Donostia Kultura txartela

2009ko abenduaren 31n, **59.521** bazkide zituen erakundeak, Kulturaren klub handi honetan sartu nahi izan zuten beste **6.208 hiritarrei** esker (% 90, donostiarrak); Gipuzkoako klubik handiena, bidenabar. Biztanleriaren heren batek txartelak eskaintzen dituen zerbitzu eta abantaila onenez gozatu ahal izan dute hala: deskontuak ikuskizun eta ikastaroetan, maileguak Donostiako liburutegietan, gonbidapenen zozketak, hileko kultur agenda etxeratzea eta abar. Abantaila horietako asko inguruko beste kultur eragile nagusietara (Aquariuma, Kutxagunea eta abar) eta jaialdietara (Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia eta abar) heda daitezke.









# Casares Irratiaren Tailerra

Casares Irratiak 24 ordu ematen ditu egunero FMko 107.4an. 2009an **16 ikastaro, 156 tailer** eta ezin konta ahala elkarrizketa egin zituen, batez ere kulturaren ingurukoak. **156 ikasle** prestatu dira, guztira, irrati horretan.



# Webguneak



donostiakultura.com



victoriaeugenia.com



santelmomuseoa.com



heinekenjazzaldia.com



donostiakultura.com/
liburutegiak

# Victoria Eugenia Antzokia

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **Victoria Eugenia Antzokia** | | | |
| Zinema | 64 | 72 | 25.080 |
| Musika | 54 | 56 | 36.988 |
| Dantza | 16 | 25 | 12.586 |
| Lirika | 2 | 5 | 2.694 |
| Antzerkia | 18 | 40 | 23.700 |
| Musikala | 1 | 8 | 3.520 |
| Bestelakoak | 1 | 1 | 740 |
| **GUZTIRA** | **156** | **207** | **105.308** |
| **Club Aretoa** | | | |
| Zinema | 1 | 1 | 50 |
| Antzerkia | 7 | 8 | 707 |
| Dantza | 3 | 5 | 453 |
| Musika | 19 | 25 | 2.395 |
| **GUZTIRA** | **30** | **39** | **3.605** |
| **GUZTIRA** | **186** | **246** | **108.913** |











Victoria Eugenia Antzokiko **musika programazioa askotarikoa, erakargarria eta bizi-bizia** izan da 2009an.

**Gaur-gaurkoak** erakartzen dituen entzuleen interesa piztu duten taldeak **(Calexico, Kings Of Convenience, Tindersticks, Ralfe Band ...)**; **espainiar** pop-eko talde eta kantari puntakoenak **(Vetusta Morla, Russian Red, Antonio Vega** —bere azken emanaldietako batean—...); areto nagusian jarduteaz gainera, Klub aretoan proposamen hurbilagoa egin ziguten izen handiak **(Noa, Paco Ibáñez);** "gurearen" ikuspegi zaindu bat **(Ken Zazpi, Gari, Oreka TX, Mikel Laboa 180º);** eta beste hainbat eta hainbat izen, jatorri askotarikoak eta/edo estilo definigaitzekoak **(Yohimbe Brothers, Ludovico Einaudi, Oliver Jones, Don Byron, Lila Downs, Kroke, Otros Aires...).**

2009a oso urte interesgarria izan da hiriko **arte eszenikoei dagokienez.** Victoria Eugenia Antzokiak buru izaten jarraitzen du Gipuzkoako agertokien artean, hala antzoki eraberrituan aurkezten diren proposamenen kalitatearen nola kantitatearen aldetik.

**Dantza**n, Europako Batasunak babesa eman dio Donostia Kulturak Malandain Ballet Biarritzekin lankidetza estuan proposaturiko **Mugaz gaindiko Koreografia Gunea**ri. Arrakasta handia da hori, arte honetan erabakimenez jarduteko eta probintzian den koreografia egoera osatzen eta hobetzen laguntzeko gaitasunaren aldetik. Koreografia Gunearen ondorio zuzena izan da Antzokiak Malandain Ballet Biarritz-en sorkuntza lan berrian ekoizle gisa parte hartzea: *Magifique* edo *Tchaïkovski Suites,* Victoria Eugenia Antzokian estreinatua kritikaren eta ikus-entzuleen aldetiko arrakasta handiz. Nazioartean ezagutza eta ospea lortu duten euskal dantzariek gure hirian dantzan egin dezaten bideak bilatzeko ideiarekin jarraitzen dugu. Halaxe gertatu da **Alicia Amatriain**ekin, zeinak arrakasta handia lortu baitzuen Moskuko Balletarekin *Gisèle*ren antzezpenean. Lehenago, Lucía Lacarra, Itziar Mendizabal, Mikel Irurzun... Donostian ikusteko aukera izan genuen. Gainera, **Dantzako Profesionalen Elkartea**k Antzokiarekin lankidetzan antolatutako galan, **Iratxe Beorlegi**k (Compañía

# Victoria Eugenia Antzokia

Nacional de Danza de México) eta **Jon Vallejo**k (Dresdengo Operako Balleta) hartu dute parte, nazioartean ezagunak diren bi dantzarik. **Wiesbadengo Balleta** izan zen nazioarteko taldeekin egindako beste apustu handi bat. Senidetutako hiri horretako balletak ospe handia du Europan. Orobat, arrakasta handia izan zuen **flamenkoa**k, **Carmen Cortés** eta **Antonio Márquez**ekin. Argiak, **Juan Antonio Urbeltz**en eskutik, arrakasta handiz estreinatu zuen *Axuri beltza*. Amaitzeko, azpimarra dezagun **Kukai-Tanttaka**k berriro harritu gintuela *Hnuy illa* lanarekin. Erbestealdiari buruzko ikuskizuna izanik, ez zituen hotz utzi ikusleak, ez edukiagatik ez proposamen estetiko eta koreografiko bezala.

**Antzerki programazioa oso betea izan da.** Zaila da urtebete laburbiltzea eta gauzarik nabarmenenak azpimarratzea, hainbeste eta hain onak izan direnean. **Eloize zirkoa**k ez zuen inor hotz utzi *Rain* ikuskizunarekin, ez eta **Animalario**k **Centro Dramático Nacional**ekin aurkeztu zuen *Urtain* ikuskizunak ere. Baina nola ahaztu *El encuentro entre Descartes y Pascal,* **Jose María Flotats**ek zuzendu eta protagonista gisa jokatua; nola ahaztu *La vida por delante* **Concha Velasco** handiarekin, edo **Els Joglars**en *La cena*. **Yllana**k mukuru bete zuen Antzokia *Pagagnini* lanarekin, munduan diren biolinjole onenetariko bat ekarri baitzuen, **Ara Malikian. José María Pou** berriro izan zen Donostian, oraingoan *History boys* aurkezteko. **Aitana Sánchez-Gijón** eta **Maribel Verdú**k ere hiru betekada lortu zituzten denboraldiko arrakasta batekin: *Un dios salvaje*. Aipa dezagun, halaber, **Alfonso Sastre**ren *La taberna fantástica,* Donostian egon baitzen Centro Dramático Nacionalen eskutik, autoreari egindako omenaldi gisa.

*Hoy no me puedo levantar* eta *Jesucristo Superstar* **musikalek** piztu egin zuten musika urtea hirian. Lehenak, diren errekor guztiak hautsi zituen sarreren salmentan. Oso-osorik onartu zuten donostiarrek, eta programaturiko funtzio guztiak bete zituzten. **Lirika**n, *El Caserío* nabarmentzen dugu, **Asociación Lírica Sasibill**ek ekoitzi eta aurkeztua.

Ezin bestela izan, eta Antzokia hiriko erreferentzietako bat bilakatu da. Donostia Kulturak zuzenean antolatzen dituen **jaialdiez** gainera (Heineken Jazzaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea), Nazioarteko Zinemaldiaren eta Musika Hamabostaldiaren egoitza ere bada Victoria Eugenia Antzokia.











# San Telmo Museoa

• **BILDUMAK**
Gaur egun, San Telmo Museoko **Bildumen Katalogoak 25.872 objektu** ditu inbentariatuta, eta honela sailkatuta:

| | |
|---|---|
| Arkeologia | 644 |
| Arte Ederrak | 6.380 |
| Etnografia | 7.253 |
| Argazkiak: | 9.114 |
| Historia: | 2.481 |
| GUZTIRA: | 25.872 |

2009an **bultzada handia** eman zaio **piezak erosteari,** bilduman ziren hutsuneak betetzeko xedez; batez ere, prestatzen ari den erakusketa iraunkor berria osoatzeko. Urtean zehar, **1.474** pieza sartu dira Museoan; horietatik, 337 erosita, 5 aldi baterako gordailuan, eta 1.131 dohaintza edo testamentu bidezko legatu gisa.

• **BISITARIAK**
**San Telmo**k, berreraikuntzaren azken txanpan, itxita jarraitzen du, eta barne-lanak abiada handian ari dira egiten. Ondoren datozen datuak Urgulleko **Historiaren Etxe**ko bisitariei dagozkie, hura ere San Telmok kudeatzen baitu. Talde bisiten datuei dagokienez, hala Urgullen nola Kalejirako programetan egin direnei buruzko datuak ematen dira.

Kalejira:1.182 parte-hartzaile
Taldeak 56
GUZTIRA 1.182

Urgull:
Bakarkakoak: 97.640
Taldeak 70, 1.333 parte-hartzailerekin
GUZTIRA 98.973

• **ZAHARBERRITZE EGITASMOA**
2009an, San Telmoko barne-lanaren ildo nagusia, jakina, museoa birgaitzeko eta handitzeko egitasmoari begirakoa izan da. **Lanek** beren bidetik jarraitu dute, eta **hilabete gutxi barru amaituko dira.** Lanak aurrera zihoazela, **elizako margolanak** aurkitu dira; aurkikuntza garrantzitsua: XVI. mendearen hondarraldekoak dirudite, eta zaharberritu egin dira.

**Egitasmo museografikoa**ri dagokionez, museoko aretoak betetzen ari dira, eta museoa irekiko denean izango duten itxura hartzen, museoko teknikarien eta 2008an egindako lehiaketa irabazi zuen enpresaren artean aurrera doan lan-prozesuari esker. Horrek esan nahi du aurrera jarraitzen duela erakusteta iraunkorrerako piezen hautaketa eta zaharberritze lanak, bai eta funts berriak erosteak eta beste enpresa eta erakundeekin egin beharreko itunek ere, zertarako eta behar bezala janzteko zenbait eremu edo gai, gizartearen norabide berriek eskatzen dituztenak. Hain zuzen, gai-eremu horien edukiak garatu eta sakontzeko, museoko lan-taldeak ikertzaile eta adituen lankidetza izan du urtean zehar beren zereginetan.

• **URGULL**
San Telmo Museoak **Urgulleko eskaintza koordinatu du 2009. urtean ere.** Hiriaren historiari buruzko erakusketa sendotu egin da erreferentzia gune gisa, eta, aurreko urteekin alderatuta, hobetu egin dira bisitarien datuak eta bisitariok egin duten balioespena.

2009an nabarmentzea merezi du **audio-gidaren doako zerbitzu berria** martxan jarri izanak. Lau hizkuntzatan eman dira azalpenak *Donostiari begira* erakusketari buruz (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez), eta 2008an hasitako egitasmoa burutu da hala (**98.973 lagun**).









# San Telmo Museoa

Berritasun horri **Napoleonen bolborategian,** Motako Gaztelutik gertu, **egindako kanoi-erakusketa** gehitu behar zaio. Bolborategia bisitatzeko aukerarekin batera, bisitariek kanoien zaharberritzea ikusi ahal izan dute lehen aldiz, eta oso harrera ona izan du ekimen horrek.

**• DOKUMENTAZIOA ETA ARTXIBOA**
Bildumak erregistratu, katalogatu eta argazkiak ateratzeko lanak **areagotu egin dira** 2009an, batez ere erosketak ugaritu direlako eta Museoko erakusketa iraunkor berria prestatzeak eskatzen dituen informazio premiengatik.

Jantzien eta ehunen bildumak katalogatzeko eta haiei buruz ikertzeko lanak **Ikerfolk**ekin batera egin dira, aurreko urteetako lanean jarraitzen baitu erakunde horrek. Lan horiez gainera, espezialistak kontratatu dira pieza erromatarren eta anforatxoen bildumak katalogatzeko. Orobat, *Hileko obra* zikloaren barruan emandako hitzaldien bildumaren zati handi bat digitalizatu eta transkribatu da; zenbait argazki bilduma ere digitalizatu egin dira, bai eta partikularren beste zenbait dokumentu ere, Museoarentzat interesa duten gaiak edo bildumak hobeto dokumentatzeko.

Bestalde, aurreko urteetan adina kontsulta eta erreprodukzio-eskariri erantzun zaie; ehundik gora izan dira.

**• ZAHARBERRITZEA**
2009an, **areagotu egin dira** bildumaren zenbait arlotako piezak **zaharberritzeko lanak,** aurki izango den erakusketa iraunkorrari begira, eta batzuetan kanpoko zaharberritzaileak izan ditugu lankide. Hain zuzen, ehun-piezak tratatu dira —aipagarriak kalitatearen eta garrantziaren aldetik—, bai eta metal, zur, paper eta margolanak ere. Azken arlo horretan azpimarratu beharra dago museoko elizan aurkitutako XVI. mendeko margolan muralen zaharberritzea, sei hilabete iraun duen prozesua.

**• KOMUNIKAZIOA**
Nabarmentzekoa da **webgunean** argazki-sail bat jarri dela ikusgai Museoa eraberritzeko prozesuari buruz —hiru hilabetez behin elikatzen da irudi berriz—, bai eta **Museoaren bloga** martxan jartzea ere. Gainera, ***Hiriko eskulturen atlasa*** jarri da herritarren esku: Donostiako kaleetan aurki daitezkeen eskulturak eta bakoitzari buruzko informazioa. Artearen zale diren hiritarrek oso ondo hartu dute zerbitzu hori.

Gainera, martxan jarri da **museoari irudi instituzionala emateko lehiaketa publikoa.** Lehiaketa hori 2010. urtearen hasieran ebatziko da.

**• LANKIDETZAK**
**"la Caixa" Fundazioa** lankide izan da berriz ere erakusketa bat antolatzeko orduan. Oraingo honetan, ***Manolo Valdés. Eskultura monumentalak*** izenekoa; Zurriolako pasealekuan izan zen irail-urrietan. San Telmok, gainera, lanean jarraitzen du **museoen sarea**n. **Hiriko** museoek beste zenbait lankidetza-egitasmo garatu dituzte; besteak beste, Museoen Nazioarteko Eguna eta Eguberrietako programazioa, zeinak sareko museoen eskaintza koordinatua izan baitu. Oraingo honetan, berrikuntza bat, hala ere: Plus 55ekin lankidetzan egin da, belaunaldien arteko jarduera bat programatzeko.

**• BESTE UDAL ONDARE BATZUK**
Batetik, Museoak **Aieteko Jauregia**n erakutsiko diren altzarien definizioan parte hartzen du; bestetik, **eskultura publikoen inguruan egindako lanari esker**, Okendo plazako Okendo Almirantearen eskulturaren zaharberritzea burutu ahal izan da, bai eta Frantziako pasealeku hasierako *Dantzariak* ere, Hiribide, Mugikortasun eta Garraio sailarekiko lankidetzan.





# San Telmo Museoa

• **ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK**

**Kultur Etxeak**

| | **Kopurua** | **Bisitariak** |
|---|---|---|
| Pintura | 17 | 7.293 |
| Eskulanak | 6 | 2.161 |
| Marrazkia | 8 | 5.264 |
| Argazkiak | 17 | 21.229 |
| Gaikakoak | 20 | 16.669 |
| Beste batzuk | 9 | 2.882 |
| **GUZTIRA** | **77** | **55.498** |

**Liburutegiak**

| | **Kopurua** | **Bisitariak** |
|---|---|---|
| Pintura | 1 | 372 |
| Eskulanak | 1 | 2.206 |
| Marrazkia | | |
| Argazkiak | 1 | 9.324 |
| Gaikakoak | 3 | 9.620 |
| Beste batzuk | 5 | 15.542 |
| **GUZTIRA** | **11** | **37.064** |

Gainera, erakusketekin zerikusia zuten **3 jarduera** egin dituzte kultur etxeek, eta 200 lagunek parte hartu dute horietan.

Donostia Kulturak egindako aldi baterako erakusketen **eskaintza askotarikoa** izan da oso, eta aurreko urteetako ildotik joan da. 2009an ere ez da izan aldi baterako erakusketarik San Telmon. Bildu diren datuak, beraz, beste gune batzuetan programaturiko erakusketei dagozkie; kasu honetan, **kultur etxeetan** —aipamen nabarmena merezi dute **Okendo Kultur Etxe**koek, alor horretan berezitua izaki— eta liburutegietan egindakoei: Liburutegi Nagusia, San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoa, Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa —Fermin Calbeton kalea— eta Casares-Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia.













# Antzoki Zaharra

| | Egunak | Antzezlanak Filmak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|---|
| **dFERIA** | | 5 | 5 | 1.543 |
| **GUZTIRA** | | **5** | **5** | **1.543** |
| | | | | |
| **Neguko antzerkia**: | | | | |
| Antzerkia | | 9 | 20 | 5.116 |
| Haur antzerkia | | 8 | 21 | 3.651 |
| Dantza | | 1 | 2 | 376 |
| Gazte Antzerkiaren Erakustaldia | | 19 | 19 | 2.091 |
| Nosferatu | 25 | 25 | 25 | 3.676 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema Astea | 7 | 50 | 18 | 9.667 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 5 | 3 | 5 | 1.115 |
| Surfilm Festibal | 4 | 32 | 10 | 3.046 |
| Ziklo eta saio bereziak | 16 | 30 | 35 | 5.696 |
| Tinko (zinea: eskolentzako paseak) | | 11 | 29 | 7.441 |
| **GUZTIRA** | | **188** | **184** | **41.875** |
| | | | | |
| **Udako antzerkia**: | | | | |
| Antzerkia | | 9 | 63 | 19.187 |
| **GUZTIRA** | | **9** | **63** | **19.187** |
| **GUZTIRA** | | **197** | **247** | **61.062** |
| | | | | |
| Alokairuak | | 16 | | |
| Kolaborazioak | | 11 | | |
| Entseguak | | 11 | | |
| **EGUNAK GUZTIRA** | | **38** | | |





Antzoki Zaharrak urteek ematen duten zapore horri eusten dio, Donostiako eta kanpoko antzerkizale fidelek hain preziatua duten keru horri.

2009ko **Udako Antzerki Denboraldia**k aurreko urteetako emaitzei eutsi die, kalitatezko programazioa eskainiz, non, berriz ere, **komedia** izan baita nagusi; Espainiako antzerkiko aktore ospetsuak etorri dira eta ikus-entzuleek erantzun bikaina eman diote. Emaitza horiei esker, esan dezakegu Donostia dela Espainia osoko antzerki-plaza sendoenetako bat. **Enrique San Franscisco, Gabino Diego, Arturo Fernández, Joaquín Kremel, Pepe Sancho, Millán Salcedo, Manuel Galiana, Enma Ozores**ek jardun dute, besteak beste, Antzoki Zaharreko agertokian.

**Neguko Denboraldian, Daniel Verones**ek *Espía una mujer que mata* aurkeztu zuen; **Emilio del Valle**k, *La lluvia amarilla;* eta Fernando Bernuések *El club de las mujeres invisibles* zuzendu zuen, **Vaivén** euskal konpainiak ekoitzita. Denek ere autore-sinadura dakarte, eta asko eskertzen dute hori Kale Nagusira joateko ohitura duten zaleek. Hain zuzen, **ikus-entzuleen batez bestekoak gora egin du** 2009an, aurreko denboraldietakoen aldean.

Euskarazko antzerki proposamenei dagokienez, helduei zuzendutako programazioan, **Donostia Antzerki Saria** nabarmendu behar da, **Euskararen Udal Patronatuak** eta Donostia Kulturak elkarrekin egindako lanaren emaitza. 2009an, **Petit Theatre du Pain**en *Juglarea, puta eta eroak* irabazi du.

Gainera, gogoratu beharra dago Antzoki Zaharrak hiriko zinesektorean duen egitekoa, urtean diren hitzordu nagusietako batzuen egoitza izaki. **Donostiako Nazioarteko Zinemaldia** ez ezik, **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** hartzen du, bai eta **Surfilm Festibal** eta **Giza Eskubideen Zinemaldia** ere. Izan ere, zineak guneaz egiten duen erabilera handi horri esker, dinamismoa eta okupazio-maila handiari eutsi diezaioke Antzoki Zaharrak, baita Victoria Eugenia Antzokia gune nagusiarekiko elkarbizitza urteotan ere.



# Kultur Etxeak
## (Kultur Ekintzako Zerbitzua)

**Kultur Ekintzako Zerbitzua**ren helburu nagusia hiritar guztiei kultur zerbitzuen eta jardueren aukera zabala eskaintzea da, kultur ekipamendurako sare baten eta esku-hartzeko hainbat programaren bidez.

Donostiako zazpi auzotan dauden bederatzi zentrok osatzen dute kultur etxeen sarea:

Casares-Tomasene eta Altza Kultur Etxeak (Altzan)
Okendo Kultur Etxea (Grosen)
Larrotxene eta Intxaurrondo Berri Kultur Etxeak (Intxaurrondon)
Loiola Kultur Etxea (Loiolan)
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguan)
Egia Kultur Etxea (Egian)
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amaran)

Kultur etxe horietatik 2009an eskainitako jarduera eta zerbitzuen kopuruen datuak, eta horietaz baliatu diren erabiltzaileenak ere, honako hauek dira

| **JARDUERAK** | **kop.** | **erabiltzaileak** |
|---|---|---|
| Antzerkia | 229 | 28.851 |
| Dantza | 37 | 8.238 |
| Zinea | 49 | 5.674 |
| Bideoa | 136 | 3.854 |
| Musika | 90 | 19.803 |
| Hitzaldiak | 115 | 4.466 |
| Erakusketak | 77 | 55.515 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 1.267 | 29.135 |
| Aretoen alokairuak | 105 | 15.811 |
| Liburutegiko jarduerak | 435 | 8.442 |
| Hainbat | 14 | 3.173 |
| GUZTIRA | 2.554 | 182.962 |

| **ZERBITZUAK**[1] | | **erabilerak** |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitak | | 600.047 |
| Ikasteko gela | | 8.350 |
| Edonostia.net (wifi konexioak)[2] | | 3.676 |
| KZgunea (Internetera sarbidea)[3] | | 75.891 |
| KZgunea (IT Txartela)[4] | 637 proba | 5.375 |
| **GUZTIRA** | | **693.339** |

| **PRESTAKUNTZA** | **kop.** | **erabiltzaileak** |
|---|---|---|
| 2009-2010 ikastaroak[5] | 185 | 2.819 |
| Ikastaro puntualak | 11 | 316 |
| Udako ikastaroak | 4 | 55 |
| KZguneko ikastaroak | 189 | 1.303 |
| Edonostia.net ikastaroak | 26 | 278 |
| **GUZTIRA** | **415** | **4.771** |

1 Espezializazioei dagozkien zerbitzuak (irratia bideioa…) kultur etxe bakoitzaren atalean ageri dira.
2 Udal Sustapen Baltzuarekin batera kudeatua, ekainetik. Loiola eta Larrotxene kultur etxeetan.
3 Eusko Jaurlaritzarekin batera kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares-Tomasene, Okendo eta Lugaritz kultur etxeetan.
4 Informazio Teknologietako oinarrizko gaitasunen egiaztagiri txartela.
5 Astean behin urritik abendura. Atalean ez dira jaso 2008an hasi eta 2009an amaitutako ikastaroak, ez eta, izen ematea urrian egin ondoren, 2010eko lauhilekoan egiten direnak ere.

Kultur etxeen **programazioa**ri dagokionez, jarduera hauek nabarmendu daitezke: *Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Antzerkia Kalean*, antzerki, musika eta dantzako programazio egonkorra (heldu, gazte zein haurrentzat), *Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Txotxongilo Jaialdia, Literaktum, Erakusketak*, eta abar. Askotariko programa da kultura proposamenen eta donostiarren zein gipuzkoarren kezka eta eskariei dagokienez, eta erantzuna eman nahi die.

Lurraldean esku-hartzeaz gainera, Zerbitzuaren eginkizuna da populazioaren **gizatalde batzuei eta besteei** arreta eskaintzea. Alde horretatik, populazio sektore jakin batzuei bideratutako kultur zerbitzu eta jarduerak eskaini dira, haien ezaugarri eta beharrei egokituak.







# Kultur Etxeak

## (Kultur Ekintzako Zerbitzua)

Hori dela eta, Udaleko beste alor batzuekin lankidetzan, azken urteotan honako zerbitzu hauek integratu dira kultur etxeetan, sektore horietara iristeko asmoz:

**Haurtxokoa**
Udaleko Haurtxokoen Sarea **6 ekipamenduk** osatzen dute. Hiru, kultur etxeetan integraturik daude (Amara, Antigua eta Groseko haurtxokoak). Hiru zentrootan **2.395 haur** daude dagoeneko izena emanda, eta guztien artean **594** dira **ohiko erabiltzaile.**

Nabarmentzekoa da zerbitzuen eskari handia izan dela, eta arrakasta handia dutela. Adibidez, 2009an 454 haur etorri dira lehen aldiz.

**Gaztelekua**
Udal gaztelekuak ere sei dira, eta **13 eta 17 urte** arteko nerabeentzako zerbitzuen sarea osatzen dute gaur egun. Kasu honetan, Amara, Antigua, Egia eta Groseko gaztelekuak daude integratuta auzo horietako kultur etxeetan. Beste urtebetez, errealitate desberdinak dituzten gazteen arteko integraziorako bidea ematen duten gune bihurtu dira zerbitzuok, eta hori helburu giltzarria da Udaleko Gaztelekuen egitasmorako. Gazteek oso partaidetza handia izan dute zerbitzu guztietan; hainbestekoa, non leku handiagoen beharra sortu baita.



**Musikagela**
Entseiatzeko aretoak aldi baterako uzteko zerbitzua da, Egia Kultur Etxean dago, eta hirian diren musika anplifikatuko taldeei zuzentzen zaie. **Zazpi saio-areto intsonorizatuk** eta **DJentzako lantegi batek** osatzen dute, **bai eta biltegi batek** ere, zerbitzua erabiltzen duten taldeek musika tresnak non gorde izan dezaten. Aurten asko ugaldu da erabilera.

**Plus 55**
Gizarte Ongizatearen unitateak eta Donostia Kulturak bultzatutako programa da, 55 urtetik gorakoen aisialdirako, eta hiriko kultur etxeetan dago martxan. **Gizatalde horretako boluntarioek bultzatu eta egindako ekimenak eta egitasmoei laguntzea** du helburu, bai eta **55 urtetik gorako pertsonen** artean kultur etxea indartzea sozializazio gune gisa, bertako jarduera eta zerbitzuen bitartez.

2009an, Plus 55ek haziz jarraitu du, hala dinamiken aldetik nola jendearen aldetik. Batetik, hainbat **jarduera** egin dira programaren barruan beharrizanei erantzuteko; honako hauek, besteak beste: *Larunbatak dantzan, Ibilaldiak Donostian, Gimnasia hondartzan, Kontalariaren txokoa, Osasun Jardunaldiak, Artea, eta abar.* Bestalde, lankidetza izan da hainbat elkarte eta erakunderekin, beste ekimen batzuetan aholku eman eta gauzatzeko, bai eta kultur etxeetan diren zerbitzuen artean zenbait ekimen sortzeko ere.

2009an hirian aisialdirako dagoen eskaintza ezagutzeko interesa duten pertsona nagusi guztiek beren eskumeneko baliabide bat izan dezaten ahalbideratu da. Guztira, **1.147 kontsulta**ri erantzun zaie.

Hona hemen zerbitzu horietaz bertan programaturiko jardueren bitartez baliatu diren erabiltzaileen kopurua:

| **SEKTORE ZERBITZUAK** | **jarduerak** | **erabiltzaileak** |
|---|---|---|
| Haurtxokoa | 188 | 16.159 |
| Gaztelekua | 342 | 22.616 |
| Plus 55 | 234 | 14.091 |
| Musikagela | 38 (talde) | 6.236 |
| **GUZTIRA** | | **59.102** |

Orobat, Kultur Ekintzako Zerbitzutik, eta beste atal eta erakunde batzuekin lankidetzan, populazio sektore jakin batzuei zuzendutako **jarduerak** diseinatzen eta programatzen dira kultur etxeetan. Hona hemen programa horien adibide batzuk: *Gaztemaniak!, Donostia Munduen Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, Larunbatak Dantzan, Cita Literaria, Emakumeen Asteak eta abar.* Donostikluba musika-zirkuitua gazteei zuzendua da bereziki, eta arrakasta handia izaten jarraitzen du ikus-entzule horien artean. Gainera, urriko Jaialdiko kontzertuen eskaintza ere badute.

Azkenik, inguruan kultur etxerik ez duten aldeetan, lankidetza hitzarmenak sinatzen dira bertako elkarteekin, alde horietan kultur programa eta jarduerak garatzeko. 2009an honako hitzarmen hauek sinatu dira:

- Igeldoko Herri Kontseilua. Igeldo auzoa
- Etxadi Kultur eta Kirol Elkartea eta Lantxabe elkartea. Aiete auzoa
- Añorga Kultur eta Kirol Elkartea. Añorga auzoa
- Mundo Nuevo Elkartea. Amara Zaharra auzoa
- Zubietako Herri Batzarra. Zubieta auzoa

# Casares-Tomasene Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 11 | 1.847 |
| Bideoa | 10 | 358 |
| Musika | 4 | 581 |
| Hitzaldiak | 22 | 287 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 33 | 427 |
| Erakusketak | 1 | 678 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 94 | 1.363 |
| Aretoen alokairuak | 4 | 272 |
| Liburutegiko jarduerak | 40 | 538 |
| Hainbat[6] | 7 | 679 |
| **GUZTIRA** | **226** | **7.030** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 55.094 |
| Plus 55 (jarduerak) | 26 | 1.469 |
| KZgunea | | 10.851 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 123 | 838 |
| Wifi konexioak | | 254 |
| **GUZTIRA** | | **68.506** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 47 | |

| IRRATI TAILERRA | | |
|---|---|---|
| Ekoitzitako irrati programak | 551 | |
| Egindako elkarrizketak | 642 | |
| Irrati tailerraren erabiltzaileak | | 156 |





Hona hemen 2009ko berrikuntza nagusia: **Casares** Kultur Etxean **Musika eta Dantza Eskolako gela** bat martxan jartzea, 4 eta 9 urte arteko haurrentzat, hainbat eskola emateko (musika eta mugimendua, musika-hizkuntza eta haur abesbatza). Kultur Etxe honetan, gainera, piano eskolak ere ematen dira; kasu honetan, haurrentzat eta helduentzat.

Heziketa-eskaintza horri denboraldi osoan eskaintzen ditugun **32 ikastaroak** gehitu behar zaizkie. Hartara, bizitza handiko kultur etxe bihurtzen da Casares; izan ere, esandakoei **Casares Irratiak, KZguneak eta Altzako Historia Mintegiak** sortzen duten jarduera erantsi behar zaie.

**Tomasene**n, sendotuz doa **Hileko gaia** izeneko zikloa. Hitzaldiak eta proiekzioak egin dira, gure liburutegiko funtsen irakurgai-gida bat ere gai baten inguruan (inmigrazioa, Bigarren Mundu Gerra, euskara, adinekoak, Afrika eta globalizazioa, nola ikusten duten auzoa Altzako emakumeek, eta oroimen historikoa).

Bereziki interesgarria gertatu da aurten **Literaktum**en edizioa, **Errumania**ko kultura gaztearen inguruan; *Liviuren ametsa* filma proiektatu da, eta bi poeta errumaniarren arteko solasaldia eta herrialde horretako musikarien emanaldia izan dira.

Gure poza azaldu beharrean gara, halaber, *Altza Ezagutuz* pasealdietara, **+55** zerbitzuak dituen jardueretako batera, lagun berriak etorri direlako aurten ere.

Baina hori gure proposamenen erakusgarri txiki bat baino ez da; izan ere, beste zenbait jarduera gure auzoko beste leku batzuetan gauzatu dira. Hala, Poltsiko Antzerkia, Bertso Astea, Osasuna eta Kirola, Antzerkia Kalean eta Abesbatzen Astea zikloei esker, hainbat estilotako emanaldiez gozatzeko aukera izan da Altzako taberna, elkarte, eliza, plaza eta kaleetan.



6 Bertso Afaria eta bisita gidatua, Antzerkia Airean IV. Antzerki Lehiaketako sarien ematea, Hautsa Kenduz X.-aren aurkezpena, jolasak eta txokolatada.

# Altza Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 12 | 1.705 |
| Dantza | 4 | 1.068 |
| Bideoa | 1 | 142 |
| Musika | 6 | 1.674 |
| Hitzaldiak | 1 | 295 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 6 | 92 |
| Erakusketak | 1 | 785 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 218 | 5.379 |
| Aretoen alokairuak | 1 | 222 |
| Liburutegiko jarduerak | 23 | 265 |
| Hainbat[7] | 4 | 434 |
| **GUZTIRA** | **277** | **12.061** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitak | | 18.007 |
| Plus 55 (jarduerak) | 9 | 1.071 |
| Wifi konexioak | | 217 |
| **GUZTIRA** | | **19.295** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 4 | |

Urteak generamatzan Altza Kultur Etxeko **ekipamendu eta instalakuntzak hobetuz,** kalitatezko ikuskizunak eskaini ahal izateko denentzako —ikus-entzuleentzako zein artistentzako— baldintza egokietan, eta 2009an hasi gara ahalegin horren emaitzak biltzen.

Nabarmentzekoa da **Buenawista, New Thunder** eta **Donostikluba**rekin lankidetzan antolatutako kontzertuen arrakasta, zenbait aldiz bete baita aretoa **(Centinela, Delorean, Tote King, Lady Dottie eta We Are Standard).**

Baita kalitatearen aldeko apustua ere, haurrentzako antzerkiaren programazioan islatu baita. Askotariko ikuskizunez gozatu ahal izan dugu: **Txotxongillo Taldea**ren *Itsasminez* eta **Teatro Mutis** segoviar taldearen *Cuento de Brujas,* **Fernando Aramburu** donostiarraren Matias zorri saritua edo **Deabru Beltza**ken Txanogorritxu magikoa, besteak beste.

Dantza ikastaroen eskaintzak eta egin diren jaialdi eta topaketek —horien adibide dira Capoeirako Nazioartekoa, Jolastokietako Sevillana Jaialdia, Emakumeen Astea edo Extremadurako Kulturaren Astea— osatzen dute gure jarduera-programa; ikusten denez, zenbait elkarteren lankidetzak aberastua. Eskaintzen ditugun zerbitzuen artean, +55 nabarmentzen da; aurten, ohiko *Larunbatak dantzan* zikloaz gainera, helduen antzerki amateurreko zenbait emanaldi izan dira.

Aipamen berezia merezi du Larratxoko Liburutegiak, non helduen atala bultzatu nahian jarraitzen baitugu; haur eta gazteentzako eskaintzari inolako kalterik egin gabe, noski.









7 Emakumearen Astearen inaugurazioa eta Emakumearen Asteko tailerrak, Skate Jaia eta Skate Txapelketa.

# Egia Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 44 | 6.668 |
| Dantza | 26 | 5.079 |
| Bideoa | 6 | 215 |
| Musika | 27 | 10.796 |
| Hitzaldiak | 6 | 180 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 33 | 440 |
| Erakusketak | 14 | 6.200 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 84 | 1.428 |
| Aretoen alokairua | 20 | 8.307 |
| Liburutegiko jarduerak | 44 | 800 |
| **GUZTIRA** | **304** | **40.113** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 49.202 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 129 | 4.444 |
| Ikastelko gela | | 6.840 |
| Musikagela | Talde kopurua 38 | 6.236 |
| KZgunea | | 7.485 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 109 | 917 |
| Wifi konexioak | | 266 |
| **GUZTIRA** | | **75.390** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 30 | |

**Ikus-entzule gazteek** Egia Kultur Etxeak eskainitako jardueretan izan duten parte hartzea izan da 2009ko gauzarik aipagarriena, hala ikastaro eta kontzertuetan nola dantza eta antzerki ikuskizunetan.

GAZTESZENA sendotuz doa **egitasmorik garaikideenentzako kulturgune** gisa; programazio askotarikoa eskaintzen du, eta musikaren eta arte eszenikoen ikusmirarik gaurkotuenaren isla fidela da. Agertoki honetatik pasatu dira, besteak beste, **Nach, Compagnie Revolution, Logela Multimedia, Anari, Antzerkiola Imaginarioa** eta **The Sunday Drivers. Festibaila** eta **Donostikluba**ren topagunea ere bada.

**Liburutegia, Kzgunea** eta **Gaztelekua** dira kultur etxeak eskaintzen dituen zerbitzu batzuk, auzoko eta hiriko beste alde batzuetako hiritarrentzat eguneroko topagune bihurtzen dutenak. Gisa horretako zerbitzuen beste adibide bat **Musikagela** da: **38 musika talde** pasatu dira bertatik, eta **1.500 entseiu**tik gora egin dute.

Artista gazteen aldeko apustua eta sorkuntza areagotzea dute kultur etxeko **hiru erakusketa-guneek** ardatz nagusia. **Hileroko bideo-proiekzioak** edo **Emakumearen Astea** Egia auzoko elkarteekiko lankidetzaren ildotik joan dira, eta gisa horretako ekimenen inguruan programa berriei ekiteko aukera bermatu dute.











# Ernest Lluch Kultur Etxea

## (Amara)

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 24 | 2.905 |
| Bideoa | 31 | 1.282 |
| Musika | 11 | 774 |
| Hitzaldiak | 20 | 876 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 33 | 519 |
| Erakusketak | 11 | 2.784 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 549 | 15.564 |
| Aretoen alokairuak | 44 | 1.218 |
| Liburutegiko jarduerak | 92 | 1.889 |
| **GUZTIRA** | **815** | **27.811** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 158.146 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 44 | 6.395 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 35 | 7.530 |
| Plus 55 (jarduerak) | 60 | 4.649 |
| Ikasteko gela | 144 | 1.510 |
| KZgunea | | 23.403 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 131 | 1.067 |
| Wifi konexioak | | 663 |
| **GUZTIRA** | | **203.363** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 46 | |

**Ernest Lluch** Kultur Etxea sendotu egin da hiritarren eta Amarako eta, oro har, Donostiako elkarteen arteko erreferentzia puntu eta topagune gisa, **zerbitzu integratuen** eskaintza oso bati esker. Hala, **era guztietako elkarteek** beren bilerak eta jarduerak egiteko orduan oso aintzat hartzen duten lekua izaten jarraitu du. 2009an, internetarako **wifi konexioa** prestatu dugu liburutegi osoan hiritarrentzat. **Ikastaroetan,** 2009an asko ugaritu da eskaintza, eta ikasle kopurua ere nabarmen hazi da, 500era iristeraino.

Zerbitzu horiei, gainera, gero eta askotarikoagoa eta zabalagoa den **programazio**a gehitu behar zaio, erakusketa, proiekzio, hitzaldi, haur antzerki, kaleko antzerki, abesbatza, ipuin-kontalari, liburutegirako bisita gidatu eta abarrez osatua. 2009ko **erakusketen** artean, *Berlingo harresia* eta *DeGénero* nabarmendu daitezke. **Literatura**k protagonismoa izaten jarraitu du Kultur Etxe honetan: **Literaktum** jaialdia, hileroko **literatur solasaldiak** eta **Narratzaileen Txokoa** ez ezik, **Eduardo Mendoza, Antonio Skármeta, John Carlin** idazleak etorri dira (**DK Literatura** programaren barruan).







Hileroko **bideo-forumak 50 film** baino gehiago eman ditu 2009an, zenbait autore eta gairi eskainitako zikloetan: Buñuel, Fernán Gómez, *road movie* delakoa, Berlin... Era berean, 2009an Ernest Lluch-ek **Dock of the Bay** jaialdiarekin lankidetzan jardun du (musikako zine dokumentaleko ziklo bat).

**Erakusleihoa** sendotzen ari da programa berezi gisa, eta proposamen diziplinarteko eta esperimentalak ikusteko aukera eskainiz jarraitzen du, formatu txikian: **Pako Aristi; Jon Garmendia eta Iñaki Plaza; Kandido Uranga; Thierry Escarmant...**

Eta ez da ahaztu behar beste programa batzuek, hala nola **Antzerkia kalean, Abesbatzak** edo **Poltsiko antzerkia**k, Amarako kale eta plazetara hedatzen dutela Ernest Lluch Kultur Etxearen programazioa. 2009an **Loiolako Erriberan** lehen aldiz programatu diren bi kale jarduerek aipamena merezi dute.



# Larrotxene Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 14 | 1.072 |
| Bideoa | 3 | 132 |
| Musika | 6 | 495 |
| Hitzaldiak | 10 | 458 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 13 | 239 |
| Erakusketak | 10 | 658 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 28 | 512 |
| Aretoen alokairuak | 1 | 60 |
| Liburutegiko jarduerak | 54 | 1.250 |
| **GUZTIRA** | **139** | **4.876** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 19.185 |
| Edonostia.net | 302 ordu | 171 |
| Wifi konexioak | | 635 |
| **GUZTIRA** | | **19.991** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 24 | |

| BIDEO TAILERRA | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Gidoi aholkularitza | 3 | 3 |
| Ekoizpenak | 20 | 48 |
| Zinemaldia (casting eta erreportajea) | 1 | 60 |
| **GUZTIRA** | **24** | **111** |

2009an sendotuz jarraitu da Larrotxene **ikus-entzunezkoetan espezializatzea egokitzeko** hartutako bidea.

**"Autore ikastaroak"** eskaintzak emaitza ezin hobeak jaso ditu, oso inpresio ona eragin baitu hezkuntza aldetiko emaitzetan eta burututako lanetan; hasiak dira sariak biltzen zine eta bideoko zenbait jaialditan. 2009-2010 ikasturtean, gurekin izan ditugu berriz ere **Jorge Gil eta Michel Gaztambide, Jose Mari Goenaga, Jon Garaño eta Raúl López.** Beste fitxaketa nabarmen bat ere egin dugu: **Pablo Malo.** Bestalde, "Pantaila Irekia" haurrentzako ikastaroak, irakasle berriekin eta modulu hobetuekin, hazi egin dira matrikulatuen kopuruz, eta hasita daude sendotzen etapa berri honetan.

Auzoko programazio sozio-kulturalak gertaera nabarmenak izan ditu berriz ere **Emakumearen Astea, Intxaurrondo Kantuz** eta **Lagunekin Kantari.** Lanean ari gara ideia berriekin, ikus-entzule eta erabiltzaile berriak ekartzeko, batez ere gazteak. **Jarduera berriak** probatu ditugu, hala nola Zinemaldiko erreportarien *casting*-a, edo Larrotxeneko plazako ludoteka.

2009an ere, eta data jakin batzuetan, arreta eskaini zaio **Bidebieta** auzoari; **Haurtxokoa** izan da jardueren ardatz nagusia.

Liburutegiari dagokionez, nabarmentzekoa da Larrotxene familiak eta haurrak erakartzeko gunea dela, erabiltzaileak sortu eta kultur etxearen beste jarduera batzuetara bideratzeko.












# Intxaurrondo Berri Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 11 | 1.247 |
| Bideoa | 2 | 16 |
| Musika | 1 | 260 |
| Hitzaldiak | 9 | 134 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 19 | 437 |
| Erakusketak | 2 | 310 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 11 | 110 |
| Liburutegiko jarduerak | 28 | 262 |
| **GUZTIRA** | **83** | **2.776** |

| ZERBITZUAK | erabilerak |
|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | 56.464 |
| Wifi konexioak | 123 |
| **GUZTIRA** | **56.587** |







**Auzoko Hiri Zentro** berriaren egiturak —dagoeneko ikus daiteke— itxaropen asko sortu ditu, baina ez du galarazi Intxaurrondo Berriko aretoek jardunean jarraitzea atsedenik gabe, gerora auzoaren kultura dinamizazio handiagoa ekarriko duenari bidea erraztuz.

Auzoko programazio sozio-kulturalak ***Emakumearen Astea*** eta ***Ibiltari Astea*** izan ditu une gorenak, jendea erruz erakarri baitute. Lanean ari gara ideia berriekin, ikus-entzule eta erabiltzaile berriak ekartzeko, batez ere gazteak. **Jarduera berriak** probatu dira, hala nola *break-dance*ko entseiuak, Kale Hezitzaileekiko lankidetzan. Lan interesgarria da, halaber, Extremadurako Zentroan egiten jarraitzen duten parte hartze lana.

**Liburutegia,** adin guztientzat, txotxongiloen emanaldietarako toki bihurtu da aurten, hobetu egin du eskaintza **wifi zerbitzua**rekin, eta **zinea**ren **eta literatura**ren arteko harremanak aztertzeko apustuari eutsi dio.

Ekipamendu honetako **ikastaro eta tailerrek** horretarako dauden ordutegi eta gune guztiak betetzen dituzte, eta nabari utzi dute azpiegitura handiagoaren beharra dagoela.






# Loiola Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 19 | 1.910 |
| Bideoa | 1 | 5 |
| Dantza | 7 | 2.091 |
| Musika | 9 | 765 |
| Hitzaldiak | 29 | 659 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 18 | 273 |
| Erakusketak | 13 | 14.986 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 77 | 1.780 |
| Liburutegiko jarduerak | 37 | 650 |
| Hainbat[8] | 3 | 2.060 |
| **GUZTIRA** | **213** | **25.179** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 30.553 |
| Edonostia.net | 242 ordu | 116 |
| Wifi konexioak | | 209 |
| **GUZTIRA** | | **30.878** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 25 | |



2009an, programazioari dagokionez, kultur etxeko **jarduerak,** zikloak eta beste zerbitzuak aurreko urteen ildotik egin dira, eta auzoaren eta parte hartze dinamikaren arteko loturak estu izaten jarraitu du. **Ikastaro eta tailerrak** gehitu egin dira, batez ere dantza lehiaketak. Iaz **Etxarriene** Zentroa ireki izanak lagundu egin du programazioa sendotzen eta hainbat jarduera Martutene auzora hedatzen.



**Liburutegia**k ere hazkundea izan du 2009an, jarduerei dagokienez, hala nola **solasaldi tematiko berria** eta hezkuntzari, balioei eta giza harremanei buruzko **tailer**-solasaldiak. Berrikuntza gertatu da **wifi** sistema berria ezartzea eta erabiltzea.








8 Gastronomiako XI. Jardunaldiak eta horiekin lotutako jarduerak, eta irteera didaktikoa mendira.

# Lugaritz Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 77 | 9.389 |
| Zinea | 49 | 5.674 |
| Bideoa | 5 | 292 |
| Musika | 20 | 2.951 |
| Hitzaldiak | 6 | 196 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 25 | 333 |
| Erakusketak | 9 | 3.958 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 129 | 1.738 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak (Merkatu zaharra) | 2.247 | 28.608 |
| Aretoen alokairua | 32 | 5.182 |
| Liburutegiko jarduerak | 32 | 865 |
| **GUZTIRA** | **2.631** | **59.186** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 46.913 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 49 | 1.932 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 39 | 2.398 |
| Plus 55 (jarduerak) | 89 | 2.839 |
| KZgunea | | 6.408 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 71 | 462 |
| Wifi konexioak | | 571 |
| **GUZTIRA** | | **65.092** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 27 | |

Algara eta gogoeta izan dira 2009an helduei zuzendutako **antzerki programazioa**ren helburuak. Helburu horiek erruz bete dira **Ron Lalá, Johnny Melville, Bikoteatro, Companhia do Chapitô, Teatro Corsario** eta **Mutis Producciones** konpainiei esker, horietxek pasatu baitira urtean zehar gure agertokitik.

Harrobiaren garrantziaz ondo jabeturik, horren aldeko apustua eginez jarraitzen dugu. **Antzerki amateurreko** hogei bat **konpainia**ren lanaren agertoki izan da Lugaritz. Haurrentzako antzerkian, konpainia ospetsuak —**Markeliñe, Txotxongillo**— eta konpainia gazteago eta freskoagoak —**LaEnanaNaranja**— konbinatzeak, bai eta txotxongiloen eta aktoreen arteko proportzio orekatuak ere, ikus-entzule zorrotz diren haurren erantzun ezin hobea izan dute ordain hilez hil, eta horrek ildo beretik lanean jarraitzera animatzen gaitu.

Lugaritzek plaza erakargarria izaten jarraitzen du **euskal musikaren ekarpenez** gozatzeko, eta **kaleko antzerkia**ren programazio askotariko eta ugariak, urte osoan zehar sakabanatuta, bide ematen die eszena gaineko esperientzia antzerkira joaten ohitu gabe dauden hiritarrei hurbiltzeko.

Kultur Etxeko **erakusketa-gunea** sendotuz doa pixkanaka artista gazteentzako erakusleiho gisa, eta **Antiguako Merkatua**k jarduera bete eta etenik gabearekin jarraitzen du auzoko dozena bat kultura elkarteen eskutik, bertan zertzen baitute beren egitekoa.

Aipamen berezia merezi du ***Bizi dugun Antigua*** egitasmoaren emaitzak: dokumental, erakusketa eta belaunaldi arteko tailer gisa, aise gainditu ditu gure usteak. Antiguatarren parte hartzeak eta jaso ditugun iritzi eta iruzkinek zein bidetatik jarraitu adierazten digute.













# Okendo Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 9 | 2.047 |
| Bideoa | 28 | 1.412 |
| Musika | 6 | 1507 |
| Hitzaldiak | 24 | 1.310 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 20 | 430 |
| Erakusketak | 16 | 25.183 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 77 | 1.261 |
| Aretoen alokairua | 3 | 550 |
| Liburutegiko jarduerak | 85 | 1.923 |
| **GUZTIRA** | **275** | **35.623** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 166.483 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 81 | 7.832 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 139 | 8.244 |
| Plus 55 (jarduerak) | 50 | 4.063 |
| KZgunea | | 27.397 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 203 | 2.091 |
| Wifi konexioak | | 738 |
| **GUZTIRA** | | **216.848** |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 50 | |

**Erakusketen eskaintza,** horixe baita Kultur Etxe honen bereizgarria, askotarikoa izan da 2009an, eta ezaugarri duen kalitateari eutsi dio. *Kontxako Emakumeen I. Banderari* buruzko ikusizko proposamenak, **Reuters** agentziaren arte grafikoak *Reuters munduari begira*rekin, eta **Gerardo Sanz**ek *Denboraren agertokia*rekin eta **Pablo Pérez Mínguez**ek *Xehetasun ikustezinak*ekin, aberastu egin dute aretoa. Nabarmentzekoak dira arte lantegi baten funtzionamenduari buruzko erakusketa, ***Alfa Arte,*** **Juan Giménez**en komiki lanak eta **David Lynch**en lan grafiko eta ikus-entzunezkoak. Gainera, erakusareto zaharrean talde erakusketak eta lehiaketak eginez jarraitzen dugu, erakusketen programa aberats eta askotarikoaren osagarri.

Kultur Etxeko **ikastaroen** artean, aipatu beharrekoa da autore eta arte plastikoen ikastaroek urtez urte duten harrera ona, hala aplikazioen aldetik (akuarela, olio pintura) nola teoriaren aldetik (Arte Garaikidea, Museoetara bisita, Nola irakurri artelan bat, Errenazimentua...).

Kultur Etxearen literatura tradizioaren ildotik, aurten ere gaur egungo literaturako eleberrigile interesgarrienei aditu eta haiekin solasean jardun ahal izan dugu: **Anne Perry (Literaktum)** eta **Antonio Muñoz Molina (DK Literatura).**

Okendok lankidetzan jardun du zenbait elkarte eta erakunderekin jarduera batzuk elkarrekin egiteko, hala nola **Lerro Kurbatuaren / Surf de culto** jardunaldiak eta Beldurrezko Zinemaldiarekin zerikusia zuten jolas-tailerrak.









# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

| | |
|---|---|
| **Liburutegi kopurua** | **16** |
| Bilduma modernoko funtsak[1] | 319.511 |
| Liburu eta liburuxkak | 258.270 |
| Braillezko liburuak | 54 |
| Soinu dokumentuak | 27.350 |
| Dokumentu elektronikoak | 7.535 |
| Ikus-entzunezko dokumentuak | 21.732 |
| Musika inprimatua | 4.351 |
| Grabatuak | 177 |
| Mapak | 28 |
| Ordenagailu eramangarriak | 14 |
| Euskarazko funtsa | 58.261 |
| Gaztelaniazko funtsa | 222.821 |
| Beste hizkuntzetako funtsa | 38.429 |
| Altak[2] | 34.052 |
| Bajak[3] | 10.727 |
| Bildumaren hazkundea %-tan | 7,84 |
| Bildumaren berrikuntza %-tan | 10,66 |
| Bilduma historikoko funtsak | 65.000 |
| Bilduma historiko katalogatua | 53.752 |
| Mikrofilmak / mikrofitxak | 8.109 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 258 |
| Internet / CDROM sarbide postuak | 227 |
| Opac | 31 |
| Opac kontsultak | 471.581 |
| WEB kontsultak | 224.146 |
| Hemeroteka digitaleko kontsultak | 22.272 |
| Liburutegi Zerbitzuko bazkideak | 95.191 |
| Bazkide aktiboak[4] | 32.867 |
| 2008. urteko bazkide berriak | 5.914 |
| Haur bazkide berriak | 1.281 |
| Liburutegira egindako bisitaldiak | 1.004.282 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 3.359 |
| Maileguak | 529.729 |
| Liburuen maileguak | 320.286 |
| Soinu dokumentuen maileguak | 42.688 |
| Dokumentu elektronikoen maileguak | 10.607 |
| Ikus-entzunezko dokumentuen maileguak | 142.811 |
| Musika inprimatuaren maileguak | 3.288 |
| Mapen maileguak | 3 |
| Ordenagailu eramangarrien maileguak[5] | 574 |
| Aldizkarien maileguak | 9.472 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 1.772 |
| Internet / CDROM / Wi-Fi kontsultak | 157.535 |
| Gelan | 45.083 |
| Gelan Ordenagailu eramangarriak | 574 |
| KZ aretoetan | 105.460 |
| e-Donostia aretoetan[6] | |
| Wi-fi | 6.418 |
| Jarduera kopurua | 723 |
| Jarduueretara etorritakoak | 14.456 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak | 938 |
| Erakusketak | 12 |

2009an urtean, honako errendimendu-adierazle hauek nabarmentzen ditugu:

- 1.004.282 **bisita** gure liburutegietara. (2008an baino % 1,5 gutxiago).
- 529.729 **mailegu** (+% 3,7) **2,9 mailegu biztanleko: Europako batez bestekora hurbiltzen gara (3-4 mailegu biztanleko)**.
- **Erosketetan**, PABen[7] gomendatutako kuota dugu: % 10. Gure bildumaren gaurkotasuna erakusten du horrek.
- **Internet eta zerbitzu elektronikoak sendotu egin dira**: 7 ordenagailu gutxiago eskaintzen dugu, E-donostia aldatu egin delako Loiolako liburutegian. Hala eta guztiz ere, 1,40 ordenagailu eskaintzen ditugu 1.000 biztanleko (IFLAren[8] batez bestekoaren gainetik).
- Azkenik, **zenbat liburu biztanleko** ematen duen adierazlea: 1,7 liburu biztanleko.

Egin diren egitasmo hauek nabarmentzen ditugu:

- Beste lau aldizkari digitalizatu dira: **La Constancia, Correo del Norte, Cuartel Real eta Easo**; eskuragarri daude hemeroteka digitaleko web-ean. Horrez gainera, **Hemeroteka digitaletik Liburutegi digitalerako bidea** egiten hasi gara, partiturak ere sartuz; besteak beste, Raimundo Sarriegiren San Sebastian martxa. Orrialdeak guztira: 211.731.
- **659 liburu elektroniko** katalogatu ditugu, egile-eskubidearen mende ez daudenak, e-book-en irakurgailuak maileguan jartzeko lehen fase gisa.
- **Ordenagailu eramangarrien mailegu zerbitzu berria** martxoan hasi zen Alderdi Eder-en, 10 eramangarrirekin. Batez beste, 4 eramangarri mailegatzen ditugu egunean. Sareko liburutegi guztietan jarri da internet konexio kablegabea.
- Sarea ere **Web 2.0**aren kulturan sartu da zerbitzuaren albisteen **blog berria**ren bidez. Liburutegia jarrera aldaketan inplikatuko da, erabiltzailearenganako konfiantza izanez, parte hartzeko aukera gehiago emanez: http://liburutegikoalbisteak.donostiakultura.com/.
- Sarearen **orri-markagailu berria** argitaratu da, **Juan Luis Landa** ilustratzailearena. 1996an hasitako bildumaren 13.a da.
- **Komik 10** bibliografia gida berria argitaratu dugu: ***Azken hamarraldiko euskal komikia***. **130 lan eta 40 autore** baino gehiagok osatutako sorta hautatua. Komiki bakoitzarekin batera, azala eta argumentuaren sinopsi laburra. **Juan Manuel Díaz de Gereñu**k idatzi du hitzaurrea, eta **Dani Fano** ilustratzaileak egin du azala. Aurkezpena Liburutegien Egunean egin zen, urriaren 24an, eta **Alderdi Ederreko Liburutegiaren 10 urte**ak ospatu genituen.
- Literatura jardueren barruan, poesiaren inguruko jardueren garrantzia nabarmendu nahi dugu, ***Poesia orduak*** eta ***Pentsamenduaren poesia***, biak ere Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoko inguru paregabean. Literatura solasaldiak dira gure literatura jarduera sendotuena.
- Haur Liburutegi Nagusian, egitasmo pilotu berri bat, ***Irakurri baino lehen irakurtzen***, 3 urte arteko haurrentzat, Mestiza elkartearekin lankidetzan.

Ez dugu ahaztu liburutegi foruak **Sarean ikusgai** egotea, eta hortik etorri dira:

- Gure komikitekaren aurkezpena Bartzelonako Komikiaren 27. Aretoan, maiatzaren 29tik ekainaren 1era bitartean.
- Komik 10 gida argitaratzearen berri eman zen *Educación y Biblioteca*ren 74. zenbakian, 2009ko abenduan.
- *Las bibliotecas espacios de ocio para el siglo XXI* komunikazioa, Deustuko Unibertsitatearen IV Foro Ociogunen (Bilbon, ekainaren 10-12an).

Liburutegi zerbitzuaren datu zehatzak honako hauek dira:

1 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako funtsak
2 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako altak
3 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako bajak
4 Mailegua gutxienez behin erabili dutenak
5 Aretoan egindako maileguak
6 Ez dago daturik ematerik, E-Donostia sisteman aldaketak izan direlako.
7 PAB: "Programa de análisis de Bibliotecas". Bertelsmann Fundazioa.
8 IFLA: Federación Internacional de Asociaciones de bibliotecarios y bibliotecas

# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua

**Liburutegi Nagusia-Alderdi Eder**

| | |
|---|---|
| Funts historikoa[9] | 65.000 |
| Funtsak | 47.404 |
| Altak | 4.999 |
| Bajak[10] | 3.050 |
| Bazkide berriak | 1.577 |
| Bisitariak | 304.896 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 1.020 |
| Maileguak | 123.320 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 412 |
| Internet / CDROM kontsultak | 33.119 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 37 |
| Funts historikoan egindako kontsultak | 3.224 |
| Ikus-entzunezkoetan egindako kontsultak | 2.453 |
| Jarduera kopurua | 142 |
| Parte-hartzaileak | 2.919 |
| Liburuxkak, gidak... | 150 |
| Erakusketak | 9 |

**Liburutegi Nagusia-Haur Sekzioa. Haur Liburuen Dokumentaziogunea**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 32.482 |
| Altak | 3.729 |
| Bajak | 1.464 |
| Bazkide berriak | 313 |
| Bisitariak | 44.733 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 158 |
| Maileguak | 31.353 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 110 |
| Internet / CDROM kontsultak | 3.353 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 10 |
| Jarduera kopurua | 81 |
| Parte-hartzaileak | 1.520 |
| Liburuxkak, gidak... | 41 |
| Erakusketak[11] | 1 |

**Altza Kultur Etxeko liburutegia (Larratxo)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 12.324 |
| Altak | 1.225 |
| Bajak | 397 |
| Bazkide berriak | 89 |
| Bisitariak | 18.007 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 81 |
| Maileguak | 12.605 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 57 |
| Internet / CDROM kontsultak | 1.883 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 4 |
| Jarduera kopurua | 23 |
| Parte-hartzaileak | 265 |
| Liburuxkak, gidak... | 51 |









9 Gutxi gorabeherako kopurua. Katalogatzen ari diren funtsa. 2009ko amaierarako katalogaturiko funtsa: 53.752
10 Behin betiko bajak eta gordailura eramandako funtsak barne.
11 Alderdi Ederren eta San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoan egindako erakusketak

# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua

**Casares-Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 26.003 |
| Altak | 2.798 |
| Bajak | 277 |
| Bazkide berriak | 418 |
| Bisitariak | 55.094 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 184 |
| Maileguak | 44.868 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 150 |
| Internet / CDROM kontsultak | 19.555 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 30 |
| Jarduera kopurua | 40 |
| Parte-hartzaileak | 538 |
| Liburuxkak, gidak... | 100 |



**Egia Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 28.163 |
| Altak | 2.123 |
| Bajak | 571 |
| Bazkide berriak | 280 |
| Bisitariak | 49.202 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 221 |
| Maileguak | 34.647 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 155 |
| Internet / CDROM kontsultak | 13.206 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 28 |
| Jarduera kopurua | 44 |
| Parte-hartzaileak | 800 |
| Liburuxkak, gidak... | 38 |



**Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 30.807 |
| Altak | 3.139 |
| Bajak | 908 |
| Bazkide berriak | 920 |
| Bisitariak | 158.146 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 529 |
| Maileguak | 82.338 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 275 |
| Internet / CDROM kontsultak | 29.030 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 41 |
| Jarduera kopurua | 92 |
| Parte-hartzaileak | 1.889 |
| Liburuxkak, gidak... | 127 |



**Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 23.028 |
| Altak | 2.358 |
| Bajak | 740 |
| Bazkide berriak | 254 |
| Bisitariak | 56.464 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 253 |
| Maileguak | 36.230 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 162 |
| Internet / CDROM kontsultak | 6.003 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 9 |
| Jarduera kopurua | 28 |
| Parte-hartzaileak | 262 |
| Liburuxkak, gidak... | 52 |



# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua

**Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurrondo)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 12.587 |
| Altak | 1.157 |
| Bajak | 377 |
| Bazkide berriak | 143 |
| Bisitariak | 19.185 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 86 |
| Maileguak | 13.656 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 61 |
| Internet / CDROM kontsultak | 2.309 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 21 |
| Jarduera kopurua | 54 |
| Parte-hartzaileak | 1.250 |
| Liburuxkak, gidak... | 29 |



**Loiola Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 25.006 |
| Altak | 2.148 |
| Bajak | 322 |
| Bazkide berriak | 192 |
| Bisitariak | 30.553 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 137 |
| Maileguak | 18.213 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 82 |
| Internet / CDROM kontsultak | 2.272 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 6 |
| Jarduera kopurua | 37 |
| Parte-hartzaileak | 650 |
| Liburuxkak, gidak... | 43 |




**Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antigua)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 24.020 |
| Altak | 2.196 |
| Bajak | 1.206 |
| Bazkide berriak | 522 |
| Bisitariak | 46.913 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 210 |
| Maileguak | 32.806 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 144 |
| Internet / CDROM kontsultak[12] | 9.287 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 26 |
| Jarduera kopurua | 32 |
| Parte-hartzaileak | 865 |
| Liburuxkak, gidak... | 182 |



**Okendo Kultur Etxea (Gros)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 30.758 |
| Altak | 3.282 |
| Bajak | 874 |
| Bazkide berriak | 947 |
| Bisitariak | 166.483 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 557 |
| Maileguak | 86.092 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 288 |
| Internet / CDROM kontsultak[13] | 33.793 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 37 |
| Jarduera kopurua | 84 |
| Parte-hartzaileak | 1.788 |
| Liburuxkak, gidak... | 71 |



12 Liburutegiari dagozkion datuak, eDonostia zerbitzuari dagozkionak sartu gabe.
13 Liburutegiari dagozkion datuak, eDonostia zerbitzuari dagozkionak sartu gabe.

# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua

**Urgull Mendiko Udako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | |
| Altak | |
| Bajak | |
| Bazkide berriak | |
| Bisitariak | |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | |
| Maileguak | |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | |
| Internet / CDROM kontsultak | |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | |
| Jarduera kopurua | |
| Parte-hartzaileak | |
| Liburuxkak, gidak... | |

**Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 10.311 |
| Altak | 1.513 |
| Bajak | 26 |
| Bazkide berriak | 237 |
| Bisitariak | 43.050 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 190 |
| Maileguak | 9.441 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 42 |
| Internet / CDROM kontsultak | 2.325 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 7 |
| Jarduera kopurua | 6 |
| Parte-hartzaileak | 172 |
| Liburuxkak, gidak... | 54 |

**San Telmo Museoko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 10.217 |
| Altak | 2.529 |
| Bajak | 1 |

**Cristina Enea**
**Ingurumen Baliabideen Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 2.130 |
| Altak | 157 |
| Bajak | 0 |
| Bazkide berriak | 16 |
| Bisitariak | 2.345 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 9 |
| Maileguak | 466 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 1,9 |
| Internet / CDROM kontsultak | 851 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 2 |

**Amundarain Mediateka. Arantzazuko Ama Ikastola**[14]

| | |
|---|---|
| Bidalitako loteak | 1 |
| Funtsak | 6.978 |
| Altak | 296 |
| Bajak | 0 |
| Bisitariak | 5.908 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 27 |
| Maileguak | 1.721 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 7,8 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 5 |
| Jarduera kopurua | 7 |
| Parte-hartzaileak | 175 |

14 Auzo guztirako zerbitzuen datuak besteerik ez.










# Liburutegiak

## Liburutegi zerbitzua

**EXPOSICIONES**

**Alderdi Eder / San Jeronimo**

| | **bisitariak** |
|---|---|
| Donostiako Emakumeen Berdintasun Kontseiluaren logotipoak. Martxoa, 2-14 | 4.320 |
| Kabum Mix Brasil Giza Eskubideak Api 20-mai 8 | 6.055 |
| Azaleztapen tailerra Mai 25-eka 8 | 2.206 |
| Miradas desde la orilla. Mundu bat Abu 1-31 | 9.324 |
| Palestina. Donostia EntreMundos Urria 1-15 | 3.325 |
| Sahara. Donostia EntreMundos Urria 9-18 | 240 |
| Miniaturazko mundua. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema Astea. Urr 30-aza 14 | 3.586 |
| Manu Ortega. Komiki Jardunaldiak Urr 30-aza 21 | 6.858 |
| Filatelia Urriak 26-27 | 100 |
| | **36.014** |

**Liburutegi Nagusia. Haur Sekzioa.**

| | |
|---|---|
| Quint Buchholz: el coleccionista de momentos | **372** |

**Casares- Tomasene**

| | |
|---|---|
| Aiton-amonen jolasak | **678** |










# Musika

**IKUSKIZUNAK**

| | Kop. | Ikus-entzuleak | Batez bestekoa |
|---|---|---|---|
| Antzoki Zaharra | 3 | 931 | 310,33 |
| Kultur Etxeak | 90 | 19.803 | 220,03 |
| Victoria Eugenia | 48 | 23.459 | 488,73 |
| Kursaal zentroa | 6 | 6.323 | 1.053,83 |
| Kursaal Fundazioa | 25 | | |
| **Guztira** | **172** | **50.516** | |

Musika jardueren programazio, kudeaketa eta sustapenaren ikuspuntutik, 2009 **bilakaera eta aurreramendu** urtea izan da sektore pribatuarekiko lankidetzaren arloan. Ekonomia krisialdiak ohitura asko aldatu ditu eta, beharbada, sektoreko zenbait jarduera aldatzen edo are hobetzen lagunduko du. Ekonomia egoera berriak hobetu egin du **sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko sinbiosia;** izan ere, elkarren gero eta behar handiagoa dute biek iragan hurbileko jarduera eta bideragarritasun mailei eusteko. Beharretik irabazia atera daiteke; izan ere, **handitu egin da** Donostia Kulturak programaturiko **kontzertu-kopurua;** batez ere, eragile pribatuekiko lankidetza izan denean ugaldu dira kontzertuak, eta horrek kudeaketa-formula batean sakontzeko bidea eman digu, arriskua banatuz eta artistak gure aretoetara duen irispidea hobetuz.  Horren guztiaren ondoriorik hoberena: **ikus-entzuleen kopurua ez da urritu.**

Aurreko urteetan bezala, 2009an ere Donostia Kulturaren musika jarduera, bere areto guztietara ez ezik, Kursaal zentrora ere hedatu zen; batzuk erakundeak zuzenean sustaturiko emankizunak izan dira **(Gospel, Australian Pink Floyd Show),** eta beste batzuk, berriz, Kursaal Fundazioaren jardueren barruan sartzeko programatutakoak.











# Antzerkia eta Dantza

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **ANTZERKIA** | | | |
| **dFERIA** | 19 | 20 | 5.346 |
| **GUZTIRA** | **19** | **20** | **5.346** |
| **Neguko antzerkia** | | | |
| Antzerki profesionala | 41 | 84 | 26.447 |
| Antzerki amateurra | 53 | 53 | 4.881 |
| Haur antzerkia | 61 | 63 | 6.767 |
| Kale antzerkia | 34 | 34 | 9.035 |
| Poltsiko antzerkia | 14 | 25 | 1.687 |
| Antzerkiko eskola-paseak | 20 | 20 | 2.171 |
| Hainbat | 6 | 6 | 666 |
| **GUZTIRA** | **229** | **285** | **51.654** |
| **Udako antzerkia** | | | |
| Antzerki profesionala | 12 | 74 | 26.211 |
| **GUZTIRA** | **12** | **74** | **26.211** |
| **LIRIKA** | **2** | **5** | **2.694** |
| **DANTZA** | **17** | **27** | **12.962** |
| **MUSIKALAK** | **1** | **8** | **3.520** |
| **GUZTIRA** | **280** | **419** | **102.387** |





Donostiako eta Donostiara bisitan etorritako ikus-entzuleek **arte une handi ugari** gozatu dituzte 2009an, bertako, Espainiako eta nazioarteko eszena-izen ezagunei esker. Hurbiletik begiratu diogu 2009an ere Latinoamerikari eta Europari, hiriak **2016an Europako hiriburu** bihurtzeko hasitako bidetik, eta **Moskuko Balleta** eta **Wiesbaden**goa izan ditugu dantzan, eta **Eloize zirkoa** antzerkian. Arrasto ahaztezina utzi zuten **Animalario-CDN**ren *Urtain* lanak eta **Yllana**ren *Pagagninik*. Garaile atera zen, halaber, **Concha Velasco,** *La vida por delante* ikuskizunarekin, eta Donostiako agertokietan izan ziren **José María Flotats, José María Pou, Enrique San Francisco, Joaquín Kremel...** Konpainien artean, **Animalario** eta **Els Joglars;** eta autoreen artean, berriz, **Alfonso Sastre.** Euskal eszenaren ordezkaritzarik onenak ere merezitako lekua izan zuen: **Tanttaka, Kukai, Vaivén, Txalo, Hika...** Musikalen artean, Mecanok *Hoy no me puedo levantar* masa fenomenoa ekarri zigun, eta Stage E.k, berriz, *Jesucristo Superstar.*

Dantzan, nabarmentzekoa Victoria Eugenia Antzokiak **Malandain Ballet Biarritz**ekin batera sortutako **Mugaz gaindiko Koreografia Gunea**k jaso zuen europar babesa. Gunearen ondorio zuzena izan da Antzokiak Malandain Ballet Biarritz-en sorkuntza lan berrian ekoizle gisa parte hartzea: *Magifique* edo *Tchaïkovski Suites.*

Donostia Kulturaren Antzerki eta Dantza unitatea erne dago ikus-entzuleei atsegin handiena ekarriko dietenen bila, Arte Eszenikoetan kudeatzen dituen guneen bitartez: **Victoria Eugenia Antzokia, Antzoki Zaharra, Imanol Larzabal (Lugaritz), Gazteszena (Egia) eta Altza.** Eta begirada berriak eta ikus-entzule berriak sortzen saiatzen da. Horretarako, 2009an, haurrentzako programazio zabalaz gainera, eskola antzerkiko beste egitasmo bat jarri du martxan, ***Eskolatik antzerkira*** izenekoa, txikienen artean arte eszenikoak sustatzeko xedez, ikastetxeen laguntzarekin.

**Egia** Kultur Etxeko Gazteszena Aretoa dantza eta antzerki garaikideetan nabarmendu da **(Antzerkiola Imaginarioa, Titzina, Matarile Teatro),** bai eta zirko berrian **(Atelier** talde frantsesa) eta poesia eta musikan **(Vicky Peña,** Antzerki Sari Nazionala 2009an) ere. **Lugaritz** Kultur Etxeko Imanol Larzabal Aretoak, berriz, formatu txikiari eta haurrentzako antzerkiari begira jardun du, eta ate ireki bat izan da artista gazte eta konpainia berrientzat, pixkanaka beren ikus-entzuleak sortuz joan daitezen. **Chapitô, Ron Lala** eta **Corsario** izan dira Heriz Pasealekuko agertokian izan diren artista batzuk.



# Zinea eta Bideoa

**ZINE PROGRAMAZIOAREN LABURPEN OROKORRA**
**ANTZOKI ZAHARRA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, TABAKALERA ETA KULTUR ETXEAK**

| | Egunak | Filmak | Saioak | Ikusleak |
|---|---|---|---|---|
| Nosferatu programazioa | 25 | 25 | 25 | 3.676 |
| Beldurrezko Astea | 11 | 61 | 33 | 12.466 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 8 | 34 | 23 | 6.804 |
| Surfilm festibal | 4 | 32 | 10 | 3.046 |
| Tabakalera | 7 | 48 | 7 | 695 |
| Ziklo eta saio bereziak | 128 | 146 | 155 | 5.776 |
| **GUZTIRA** | **183** | **346** | **253** | **32.463** |



**ZINEAREKIN ETA BIDEOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK**

Donostia Kulturaren zine programazioa **lau sail**etan garatu da: **Nosferatu** programazio egonkorra, urtean zehar programatzen diren saio bereziak (Kimuak, Koldo Zuazuak ekoitzitako film laburrak, Check Point Rock, etab.), **zinemaldiak** eta **Tabakalerarekiko lankidetza.**

**Zinemaldiek** gero eta **protagonismo handiagoa** dute programazioan. **Giza Eskubideen Zinemaldia**k arrakasta handia izan du ikus-entzuleen eta kritikaren aldetik, eta handitu egin du bisitatzen gaituzten gonbidatuen kopurua: errealizadoreetan, **Haile Gerima** (Etiopia), **Heddy Honigmann** (Herbehereak), **Yesim Ustaoglu** (Turkia) eta **Carl Deal** (AEB); ekoizleen artean, **Carmen Cobos** (Herbehereak) eta **Tia Lessin** (AEB); banatzaileen artean, Karma, Barton, Alta Films, Festival Films, etab.; kritikarien artean, Antonio José Navarro (Dirigido) eta Roberto Cueto (Cahiers du Cinéma)... Zinemaldia gogoeta eta eztabaidarako gunea izan da, ezinbesteko topalekua bakearen kulturaren alde apustu egin duen hiri batean.

**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**k, dirumurrizketak direla eta, egun bat kendu du bere egutegitik, ez du programatu kale antzerkirik, eta ez da eman filmik Kursaalean; eta, ondorioz, ikus-entzuleen kopurua ere murriztu egin da. Hala ere, Antzoki Zaharreko programazioak arrakasta handia izan du, eta nabarmen handitu da Victoria Eugenia Antzokian euskaraz azpidatzitako proiekzioetan saio bakoitzeko izan diren ikusleen batez bestekoa (143tik 212ra).

**Surfilm Festibal**ak topaleku izaten jarraitzen du kirol horren eta, oro har, itsasoaren zaleentzat. Eta 2009an, lehen aldiz, Donostia Kultura **Dock on the Bay** zine, bideo eta musika jaialdiaren babesle bihurtu da, beste batzuekin batera. Jaialdi hori Antzoki Zaharrean, Egian, Ernest Lluchen eta FNACen izan da.

Azpimarratzekoa, halaber, **Tabakalerarekiko lankidetza.** Batetik, elkarrekin programatzen ditugu Miarritzeko **FIPA**ko film sorta bat eta **Clermont-Ferrand**eko Zinemaldiko film labur esperimentalen **LABO** saila (osorik). Gainera, Zine Unitateak aholkularitza lana egiten du Tabakalerarentzat arkitektura egitasmoan, eta lanean ari da, halaber, bi erakundeok ikus-entzunezkoetan izango duten bateratzeari begira.







# Zine Unitatearen Argitalpenak

2009an, **Nosferatu** liburu bildumako **bi zenbaki** argitaratu dira. *Robert Rossen: su obra y su tiempo* (Quim Casas, José Antonio Hurtado eta Carlos Losillak koordinatuta) eta *El thriller USA de los 70* (Antonio José Navarrok koordinatuta). Liburu horiek Antzoki Zaharrean programatzen diren film zikloen informazio euskarria dira.

**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**rekin batera, *Métal Hurlant y el cine fantástico* (Jesús Palacios-ek koordinatua) liburua argitaratu da.

Gure liburu guztiak UDL Libros-en bitartez banatzen dira Espainian.

Eta, urtero bezala, Asteak **2000 Maníacos fanzinea**ren beste zenbaki bat koproduzitu du.

# Festak









2009a **aparta** izan da Donostia Kulturako Festen unitatearentzat; ekonomia egoera zaila izan bada ere, hiritarrek erantzun ezin hobea eman diete antolatutako jarduerei.

Hauetxek dira gauzarik aipagarrienak:

Otsailean, aurreko urtean egindakoaren tamainako erronka handi bati ekin genion: **Kontxako Emakumeen I. Banderari buruzko argazki erakusketa koordinatzea.** Emaitza ikusgarria izan zen, hala alderdi estetikoan nola etorritako jendekopuruari eta jendeak erakutsitako interesari dagokienez.

Gainera, **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalaren 125. urteurrena** eta **Groseko Hungariako Kaldereroen Konpartsaren 25. urteurrena** ospatu genituen, zenbait erakusketa eta jarduera zirela medio.

Abuztuan, **Orfeoi Donostiarraren Kontzertu Berezia** antolatu genuen Artzain Onaren Katedralean, Donostia **2016**an Europako hiruburu izateko hautagaitzaren alde.

Irailean, berriz, beste urrats bat egin genuen **Kontxako Emakumeen Bandera** sendotzeko. Partaideen kopurua nabarmen handitu zen bigarren edizioan (8 partaide 2008an, 11 partaide 2009an), eta interes handiko kirol eta jai adierazpena bihurtu da proba gure hiriarentzat.

**Gipuzkoako Arraun Federazioaren onespena** jaso genuen, azkenik, arraun munduari eman diogun babesagatik eta, bereziki, Kontxako bi Banderen antolakuntza bikainagatik (gizonezkoena eta emakumezkoena).

Hauek dira 2009an antolatu ditugun jarduerak:

**ERREGEAK** (urtarrilak 5)

**Victoria Eugenia Antzokia**n egin zitzaien harrera Erregeei, eta ondoren Udaletxera joan ziren Dbus-eko autobus batean. Han, haurrek Erregeei gutunak eskura emateko aukera izan zuten. Gero, zaldi gainean ibili ziren hiriaren erdialdeko kaleetan zehar (18:00). Horren atzetik, hainbat gizarte zentro bisitatu zituzten.

Talde kop.: 12
Parte-hartzaile kop. 500dik gora
Karrozak: 4
Fanfareak: 4 Pasai, Gauerdi, Incansables, Kantauri
Gozokiak: 1.300 kg. (egokiak diabetiko eta zeliakoentzat ere)

**HAUR DANBORRADA** (urtarrilak 20)

19an, Haur Danborradan parte hartuko zuten Ohorezko karguen eta konpainien aurkezpen festa egin zen **Victoria Eugenia Antzokia**n. **Reala**ren mendeurrena ere gogoan izan zuten txikienentzako festan; *pin* bat eman zitzaien, oroigarri. Easo Ederra, Jenerala, Laguntzailea, Damak eta Zaldizainak **Erain Eskibel** ikastetxekoak ziren, eta Danbor Nagusia, berriz, **The English School** ikastetxekoa.

Parte-hartzaileak: 45 ikastetxe, 52 konpainiarekin.
Haurrak, guztira: 4.705

# Festak

Ikusleen zenbatespena: 35.000-40.000 lagun

**HELDUEN DANBORRADA** (urtarrilak 20)
Nahi duten talde eta erakundeek parte har dezakete aisialdi jarduera honetan, Helduen Danborraden estatutuan ezarritako gutxienezko baldintzak betez gero. 24 ordu festan, Raimundo Sarriegiren martxen doinupean.

**BANDERA JASOTZEA** (urtarrilaren 19tik 20rako gauean)
Zenbait danborradatako 73 ordezkari, Gaztelubiderekin batera.

**24 orduan:** Helduen 105 danborrada hiriko auzoetan (12.133 partaide).

**BANDERA JAISTEA** (urtarrilaren 20tik 21erako gauean)
Hiriko alkateak, Realeko jokalari gizonezko eta emakumezkoek jaitsi zuten bandera, Union Artesanak Sarriegiren martxak jotzen zituelarik. Bandera jaitsi eta gero, **Reala**rena jaso zen klubaren himnoaren erritmoan, mendeurrena ospatzeko ekitaldien hasiera gisa.

**Urrezko Danborra: Iñigo Olaizola**

**KALDEREROAK** (otsailak 7)
Inauteriak iragartzen dituen jarduera. Urtero egin ohi da otsailean, Kandelaria egunaren ondorengo lehen larunbatean. 2009an, gaur egun ezagutzen dugun erako **Kaldereroen lehen Konpartsa**ren **125. urteurrena** ospatu zen.

Edizio hau aurrekoetatik desberdindu zuten ekitaldien artean, jaiaren bilakaerari eta bere pertsonaiei buruzko **erakusketa** eta **hitzaldiak** nabarmendu daitezke; Groseko auzoko **Okendo Kultur Etxea**n izan ziren.

6 konpartsak lagundu zioten Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalari abagune honetarako programaturiko ekitaldiak ospatzen.

Auzoek ere hartu zituzten kaldereroen konpartsak, zein bere egun eta orduetan ibili baitziren kalerik kale, zartaginei hotsa ateraz jaiari dagozkion melodien erritmopean.

**INAUTERIAK** (otsailak 19-23)
Mozorroak, dantzak, musika eta umore ona egun horietan Donostiako kaleetan, eguraldi ona izan baitzen.

**Momo jainkoa:** Montxo García Torrado, Altzako Gurea Konpartsakoa.

**Segizioa:** Igone Gallardo Gómez, Agustín García Torrado eta Josetxo García Torrado.

**Urrezko sardina:** AMIGOS DEL CARNAVAL, "Los Yesterday"rena egiten, hiriko kaleak umorez eta originaltasunez betetzeagatik









# Festak

**Sarituen zerrenda:**

**Inauteriko Sari Nagusia**

**Konpartsa Handiak:**
1. Saria: Karmelo Txiki
2. Saria: Eureka
3. Saria: Gurea

**Konpartsa Ertainak:**
1. Saria: Txassis
2. Saria: Odissey
3. Saria: Alaia

**Konpartsa Txikiak:**
1. Saria: Aitor Ikastola
2. Saria: Bosko Zuhaitz
3. Saria: America Latina Unida

**Umorearen Sari Nagusia**

**Konpartsa Handien Karrozak:**
1. Saria: Boveda
2. Saria: Eureka
3. Saria: Thamessis

**Konpartsa Ertainen Karrozak:**
1. Saria: Alaia
2. Saria: Santa Barbara
3. Saria: Alegria De Alza

**Konpartsa Txikien Karrozak:**
1. Saria: Aitor Ikastola
2. Saria: Alaia
3. Saria:

**SAN JUAN BEZPERA** (ekainak 23)
Lekua eta ordua: Konstituzio plaza, 19:00.
Ongi etorria udari, lizar bat errez eta inguruan dantza eginez, agur gisa. Goizaldi Dantza Taldekoek San Juan Zortzikoa dantzatu zuten. Duela 9 urte berreskuratu zen dantza hori.

**ASTE NAGUSIA** (abuztuak 8-15)
Donostiako udako jai nagusia, adin guztietako jendearentzat. Jarduera programa askotarikoa, eguraldi onaz gozatu eta gure hirian txoko berriak aurkitzeko festa eta jai giroan. Hasiera **Real Sociedad**ek eman zion, mendeurrenean dela eta.

**Urrezko kopa:**
1. Floren Nazabal: 34.10 minutu
Probaren errekorrak lehengoan dirau (Donato Larretxea, 1995an; 27:17)

**Igeldoko Harria:**
1. Jose Ramon Iruretagoeina (Izeta II.a): 17 altxaldi
Probaren errekorrak lehengoan dirau (Goenatxok, Euskadiko 6 orduetan, 2002an, 19 altxaldi)







# Festak

Agertoki kop.: 8
Jarduera kopurua: 220
Musika emanaldiak: 86
Haurrentzako jarduerak: 40
Kirolak: 24
Antzerkia eta Zinea: 14
Folklorea: 11
Suzko zezenen entzierroak: 7
Hainbat: 38

**XVIII. DONOSTIA HIRIA POP-ROCK LEHIAKETA**
(finala: abuztuaren 9an)
2009an ere, Donostia Hiria Pop-Rock Lehiaketa egin zen Aste Nagusian. Aurkeztutako **32 maketen** artean, **9 talde**k parte hartu zuten finalerdietan. Nahitaez bete beharreko baldintza: inoiz CDrik argitaratu ez izana.
**Sarituen zerrenda:**
1.a CORREOS
2.a LES ENFANTS TERRIBLES
3.a THE LOST WAVES
Epaimahai Gaztea: PRIM LANE

**SU FESTEN NAZIOARTEKO 46. LEHIAKETA-JAIALDIA**
(abuztuak 8-15)
Aste piroteknikoan, **zortzi enpresak** parte hartzen dute, **munduko hainbat lekutatik etorriak.** Argitasuna, sormena, artea eta ikuskizuna: horra lehiaketaren edukia ezin hobeto definitzen duten hitzak.
15ean, RICASA enpresak izan zuen lehiaketari azkena emateko ardura, ikuskizun piromusikalaren bidez.
**Sarituen zerrenda:**
1. Urrezko Maskorra: PIROTEC. PEÑARROJA (Castello)
2. Zilarrezko Maskorra: PIROTEC. HNOS. CABALLER (Castello)
3. Brontzezko Maskorra: PIROTEC. VALENCIANA (Valentzia)

Epaimahaiak aurkezturiko bildumen kalitate handia nabarmendu zuen, bai eta ikuskizunen ikusmoldea ere, ezin fidelago erantzun baitzioten Nazioarteko Jaialdi-Lehiaketaren proposamenari.
Herri epaimahaiaren irabazlea:
PIROTECNIA HERMANOS CABALLER (Castello)
Gazteriaren sariaren irabazlea:
PIROTECNIA PEÑARROJA (Castello)

**EUSKAL JAIAK** (irailak 3-13)
Gure herriko **kultura, folklore** eta **festa eta jai giroko jardueretarako** astea. Herri kirola, gastronomia, musika eta dantza izan ziren protagonista Euskal Jaietan.

Programaturiko jarduera guztiek izan zuten espero zen parte hartzea. Nabarmentzekoa jende gehiago bildu izana asteburuan antolaturiko jardueretan, Kontxako Estropadekin batera tokatu baitziren.
Jarduera kopurua: 39
Musika emanaldiak: 13
Dantza: 5
Antzerkia: 1
Kirola: 6
Haurrentzako jarduerak: 4
Gastronomia eta merkatuak: 4
Hainbat: 6







# Festak

**DONOSTIAKO ESTROPADAK:**

**GIZONEZKOEN KONTXAKO BANDERA**
(irailaren 3, 6 eta 13an)
Irailaren 3an 24 traineruk parte hartu zuten sailkapen probetan, eta honako hauek sailkatu ziren:
KAIKU
BERMEOKO ARRAUN ELKARTEA
KAIARRIBA ARRAUN ELKARTEA
CRO ORIO AE
HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA
S.D.R. PEDREÑA
SAN PEDRO
S.D. CASTRO URDIALES
**Irabazlea: Kaiku**

**Ikusle kopuruaren zenbatespena: 30.000 lagun eguneko***

* Ikusleen zenbatespena: horietatik 18.742 takilako salmentan; eta 30.000 horiei EITBk Kontxako estropadei eskainitako programa bereziko sharea gehitu behar zaio; irailaren 13an, igandearekin, % 20,7koa izan zen Euskadin, audientziarik handiena bere ordu tartean. Programa berezi hori Kirolez Kirol-en goizeko emanaldian eskaini zen, eta guztira 354.000 laguneko audientzia izan zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta inguruko erkidegoetan.

**KONTXAKO EMAKUMEEN II. BANDERA**
(irailaren 13 eta 14an)
**Bigarren urtez segidan,** Kontxako Emakumeen Banderaren bigarren edizioa izan zen.

**Parte-hartzaileak: 10 traineru**
ARTABRIA (A CABANA FERROL)
BIZKAIA A.T
CATALUNYA
CLUB REM BADALONA
CLUB REMO MECOS-MONDARIZ
GALICIA-RIANXEIRA
GETARIA-TOLOSA
HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA
SOCIEDAD DEPORTIVA DE REMO ASTILLERO
UR-KIROLAK
ZUMAIA-KIROL JOKOA
**Irabazlea: Galicia-Rianxeira**

**SANTO TOMAS FERIA** (abenduak 21)
Hasieran, baserri giro nabarmeneko jaia izan zen, neguaren etorrerarako prestatzeko. Ospakizun zio hori desagertu ondoren, 50eko urteetan haurrak baserritar jantzian kaleratzen hasi ziren, antzina Konstituzio plazan ikusten ziren jantziak imitatuz. Ohitura hori indartuz joan zen, eta 90eko azken aldera helduak ere halaxe janzten hasi ziren. Bestalde, 60ko hamarraldiaren erdi aldera txistorra postuak hasi ziren jartzen plazan, ikasketa bidaiarako dirua ateratzeko. Horiek guztiak Santo Tomas Feriako osagai bihurtu dira, eta halaxe hartzen ditugu gaur egun.

**Jaiguneak:**
**Postuak:** 209 txistorra, taloak, gazta, eskulanak…
**Ikusleen zenbatespena:** 50.000 lagun
**Urdemea:** Igone izenekoa, Leitzako Arro baserrikoa, 350 kilo gutxi gorabehera



**Zenbait lehiaketa:**

**XIV. TXISTORRA**
1. SARIA: JOSE BENITO DEBA
Deba Harategia Ormaiztegi 200,00 € + txapela

**EZTIA Elkano kalean**
1. SARIA: AIZEGA, Jose Miguel Hernani140,00 € + trofeoa

**FRUTAK ETA BARAZKIAK Konstituzio plazan**

**BARAZKIAK**
1. SARIA: , Jose Manuel Donostia 310,00 €

**FRUTAK**
1. SARIA: IRADI, Maddi Hernani 310,00 €

**JOSE SALABERRIA MEMORIALA**
MURGIONDO, Anttoni Gabiria 300,00 €

**ONDOEN GIROTUTAKO POSTUA**
Ex aequo LA ANUNCIATA Gipuzkoa plaza 05
150,00 € + trofeoa
EHU ENPRESA ZIENTZIAK Gipuzkoa plaza 25
150,00 € + trofeoa

**TXORIMALOAK Boulevardean**
1. SARIA: ASOC. CULTURAL THAMESSIS Donostia 600,00 €
2. SARIA: EASO INSTITUTUA, 1. ZENB. Donostia 400,00 €
3. SARIA: ASOC. CARMELO Y PRAGA Donostia 200,00 €

# Festak

**OLENTZERO (abenduak 24)**
Hiriak ongi etorri Olentzerori. Loiola kalean hasi zen jai hau, Olentzerorentzako gabon-kanta, jolas eta marrazkiekin, eta XURDIN GABONETAKO KONTZERTUA
**Parte hartu zuten ikastetxeak:** Antigua Luberri BHI, Arantzazuko Ama Ikastola, Axular Lizeoa, Eskola, Gero Axular Dantza Taldea, Jesuitak – Goizaldi, La Anunciata Ikastetxea, La Salle, Trumoiak, Zubiri Manteo, Zuhaizti Eskola
**Parte-hartzaileak:** 504

**DONOSTIA KULTURAK (FESTEN ATALAK) KUDEATURIKO JARDUERAK**

**BAIMENEN KUDEAKETA ETA/EDO AZPIEGITUREN EKARPENA**

| | |
|---|---|
| **AUZOETAKO JAIAK** | |
| Jai kop. | 29 |
| **KALDEREROAK ZENBAIT AUZOTAN** | |
| Konpartsa kop. | 17 |
| **IÑUDE ETA ARTZAIEN KONPARTSAK** | |
| Konpartsa kop. | 4 |
| **KALDEREROAK ZENBAIT AUZOTAN** | |
| Kolektibo kop. | 21 |
| **ETXE ERREGIONALEN JAIAK** | |
| Jai kop. | 8 |
| **ZENBAIT KOLEKTIBO** | 47 |

**SENIDETZEAK**

Gaur egun, Donostia 6 hirirekin dago senidetuta: Wiesbaden (Alemania), Trento (Italia), Plymouth (Britainia Handia), Marugame (Japonia), Reno (AEB) eta Daira de Bojador (Saharar Errepublika). 2009an ekintza hauek egin dira:

**WIESBADEN**
• Batzordearen lehendakariaren bisita, urtean zehar landuko diren gaiez hitz egiteko.
• Vicente Belda Momo jainkoaren eta bere segizioaren bisita Wiesbadengo Inauterietara, Donostiaren ordezkari gisa. Otsailaren 20tik 24ra.
• Donosti Cup Nazioarteko Futbol Txapelketa. 18. edizioan, Elly Heuss Schule-ko bi taldek (bat neskena eta bestea mutilena) parte hartu zuten.
• Haur Liburutegi berria. Euskarazko eta gaztelaniazko liburuak bidali ziren Donostia Kulturatik, Wiesbadengo Liburutegi berrirako.
• Hiri hartako talde baten bisita, Donostia ez ezik, hiriak elbarrituak integratzeko dituen neurriak ezagutzeko.

**TRENTO**
• Saskibaloi txapelketa. Easo Saskibaloi Taldeko Mini Easo 98 taldeak Saskibaloiko Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuen Trenton, maiatzaren 29tik ekainaren 2ra.
• Palio dell'Oca (Feste Vigiliane, ekainaren 19tik 22ra): Donosti Kayak taldeak ordezkatu zuen gure hiria Palio dell'Oca erregatan, Trenton egin baitzen Feste Vigiliane-en barruan (San Vigilio Trentoko patroiaren jaia). Urtero baltsa-lasterketa bat izaten da Adige ibaian.

**MARUGAME**
Garaikurren trukea. Donostiaren aldetik, zenbait garaikur bidali ziren beisbol eta saskibaloiko eskola txapelketetarako, eta horren truke, Marugame hiriak garaikurrak bidali zituen hondartzako futbol txapelketarako.






# Heineken Jazzaldia

Heineken Jazzaldiaren edizio hau, ustez, eta **diru murrizketa** handiak zirela medio, apalagoa eta neurritsuagoa ageri zen programazioaren aldetik, baina **arrakasta biribila** gertatu zen, bai bertara agertutakoen gogoan eta bai kopuruen aldetik.

**Bost egun** iraun zuen —aurreko urteetan baino bat gutxiago—, eta doako kontzertuak 2008an baino % 12 gutxiago izan ziren. Hala ere, harritzekoa, inoiz baino jende gehiago etorri zen Jazzaldira kopuru erlatiboetan, **27.000 ikus-entzule eguneko**. Ordaindutako kontzertuetan, ordea, gutxiago izan ziren ikus-entzuleak: garaion adierazle, noski.

Ekitaldiak guztira: 70
Ikus-entzuleak guztira: 103.307
Ikus-entzuleak, batez beste, ekitaldiko: 1.477,25











# Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea

Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen XX. edizioa urriaren **31tik azaroaren 6ra** egin zen. **28.414 ikusle**k parte hartu zuten, hala zine proiekzioetan (12.466) nola programa osatzen zuten jarduera paralelo guztietan. Komikiaren V. Jardunaldiak, erakusketak, antzerkia, musika, mahai-jokoak, Beldurraren Etxea, etab. (15.948). **Lesbian Vampire Killers** film britainiarrak irabazi zuen Ikus-entzuleen Saria. Programazioan, urtean genero honetan egin diren izenbururik garrantzitsuenetako batzuk nabarmendu ziren, hala nola Estatu Batuetako **The Box, Grace** eta **Número 9; Vertige** edo **Mutants** frantziarrak, **Tetsuo: The Bullet Man** eta **Robogheisa** japoniarrak, **Triangle** britainiarra edo **Dead Snow** norvegiarra. Asteak beste urte batzuetan baino deszentralizazio handiagoz jardun nahi izan du, eta zenbait auzotara iritsi da kultur etxeei esker: Antzerkia izan dute Antiguan, erakusketak Amara, Gros, Parte Zaharra eta Erdialdean, eta Mahai-jolasak eta Beldurraren Tunela Grosen. Murrizketak murrizketa, Asteak beste 7 egun ekarri ditu aurten ere, fantasiaz, beldurrez eta jostetaz beteak, eta Zineak —hizki larriz— bere edizio hoberenetariko bat bizi izan du.
















# Giza Eskubideen Zinemaldia

Giza Eskubideen VII. Zinemaldia 2009ko apirilaren 23tik 30era egin zen, Victoria Eugenia Antzokian (egoitza nagusia), eta hiriko beste zenbait gunetan. **José Luis Borau**k jaso zuen Zinemaldiko **Giza Eskubideen Saria.** Zinemaldian zehar, era guztietako gaiak ukitu ziren, munduan gertatzen diren giza eskubideen urraketekin zerikusia zutenak. Terrorismoaren kontrako batasuna; arabeen eta israeldarren arteko gatazka; emigrazioa / immigrazioa; hezkuntza eta emakumeen kontrako indarkeria; homosexualitatea eta gizartean duen onarpena; gaixotasuna, mendekotasuna eta familian duen eragina; haur soldaduak gizartean integratzea; Afrika eta talentuen ihesa; haurren eskubideak; ustelkeria politikoa, zigorgabetasuna eta oroimen historikoa; osasunbide publiko unibertsalerako eskubidea; hondamendi naturalak eta gizakien gaitasunik eza; beste bizimodu batzuk: nomadak; terrorismoa eta segurantzarik eza; etab. Hori guztia honako film hauen bitartez: **Ander, La caja de Pandora, La Forteresse, Johnny Mad Dog** (Ikus-entzuleek Film Onenari emandako Sariaren irabazlea), **Sicko, Teza, Trouble the Water** edo **El olvido,** besteak beste; antzerki ikuskizunak; erakusketak; kontzertuak; eta zenbait solasaldi Antzokian bertan, proiektaturiko filmen zuzendariekin, zenbait erakundetako ordezkariekin eta jorratutako gaietan aditu zirenekin.








# dFERIA

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **ARETO - IKUSKIZUNAK** | | | |
| Victoria Eugenia | 4 | 5 | 2.257 |
| Antzoki Zaharra | 5 | 5 | 1.543 |
| Gazteszena (Egia) | 5 | 5 | 889 |
| Imanol Larzabal (Lugaritz) | 5 | 5 | 657 |
| **GUZTIRA** | **19** | **20** | **5.346** |
| | | | |
| **BESTE IKUSKIZUNAK** | | | |
| Antzerki airean | | | 18 |
| Antzerki airean: sari-emate ekitaldia | | | 397 |
| “Denboraren agertokian” erakusketa | | | 3.110 |
| SAREA: asanblada | | | 60 |
| Espainiako Sare Nazionaleko batzarraren bilkura | | | 10 |
| Esquina Norte: bilera | | | 10 |
| Negozio-foroa | | | 46 |
| EHU-Okendo Kultur Etxea: narratzaileak | | | 20 |
| AECID: bilera | | | 8 |
| Espainiako Antzoki Sarea: asanblada | | | 50 |
| EHU-Ernest Lluch Kultur Etxea: narratzaileak | | | 40 |
| Juan Sánchez-en hitzaldia | | | 43 |
| AECID: bigarren bilera | | | 8 |
| Latinoamerikar koreografoen master-classa | | | 20 |
| Charlando con… Gabriel Calderón, Ramiro Perdomo | | | 157 |
| EHU-Ernest Lluch Kultur Etxea: narratzaileak (2) | | | 30 |
| Victoria Eugenia: bisita-gidatua | | | 8 |
| Eskena: bilera | | | 25 |
| Espainiako sarea: Musika Batzordearen bilera | | | 15 |
| Jesús Oyamburu: hitzaldia | | | 37 |
| EHUko mahai-ingurua: (Felipe Acosta, Gustavo Zajac) | | | 90 |
| Denboraren agertokian: bisita-gidatua | | | 12 |
| Master Class Juan Carlos Santamaría | | | 20 |
| Charlando con… Mirella Carbone | | | 146 |
| Gustavo Zajac: Egia. Koreografia erakustaldia | | | 146 |
| Gustavo Zajac: Koreografia erakustaldia. Bi pase Cluben | | | 160 |
| TOPIC: bisita | | | 52 |
| Profesionalentzako topagunea | | | 300 |
| **GUZTIRA** | | | **5.038** |
| | | | |
| **ALORREKO PROFESIONALAK** | | | |
| Programatzaileak | | | 90 |
| Banatzaileak | | | 69 |
| Komunikabideak | | | 70 |
| Konpainiak | | | 172 |
| COFAE-feriak | | | 16 |
| Hainbat | | | 53 |
| **GUZTIRA** | | | **470** |
| | | | |
| **GUZTIRA** | **19** | **20** | **10.854** |








# dFERIA

dFERIA 09ren edizioa irudimen eta asmamen dexentez egokitu da diru-baldintza berrietara, feriaren oinarrizko ekintzei lehentasuna emanez osagarrien gainetik. **19 ikuskizun (20 funtzio)** programatu dira hiriko agertokietan. Hamabosgarren edizioaren ondoren, dFERIA 09k sendotu egin du bere marka-irudia Estatuan. Halaxe adierazten du **akreditaturiko profesionalen** kopuruak, **298, 15 edizioetan lortu den kopururik handiena** baita. Kale programaziorik ez izateak eta Kursaala ez erabiltzeak eragin erabakigarria izan dute ikus-entzuleen eta programaturiko funtzioen kopuruan. Ekitaldi paraleloei eman zaien bultzadak erantzun zuzena izan du jendearen parte hartzean; esate baterako, % 50 profesional gehiago izan dira.

Gutxi gorabehera, **5.346 lagun** izan dira aretoan programaturiko ikuskizunen batean, eta horiei jarduera paraleloetako **5.038 parte hartzaileak** gehitu behar zaizkie. Guztira, **10.854 lagun.**

**Itinerarte**ren bigarren edizioak —biran dabiltzan konpainia latinoamerikarrak— haziz jarraitzen du. 2009an, Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait herritara zabaldu da bira: Eibar, Durango, Elorrio, Amorebieta eta Basauri; Santander eta Donostia ahaztu gabe. Bere nortasuna duen egitasmoa da, eta, eman dituen datuen eta edukien arabera, bere bidetik garatzea eskatzen du, feriatik aparte. Konpainiak herrialde hauetakoak izan ziren: Peru, Uruguai, Costa Rica, El Salvador, Argentina eta Honduras.

2009an **ezin izan dugu gozatu kaleko arteez,** aurreko edizioetan bezala; diru-urritasunak feriaren muinera mugatzera behartu gaitu, hots, aretoko ikuskizunetara, horiek baitira feriaren espezialitatea.





Argi dago konpainiek dFERIAren aldeko apustua egiten dutela, erakusleiho ezin hobea delako ikuskizuna estreinatzeko; izan ere, ikuskizunen % **73,68 estreinaldiak** izan dira era batera edo bestera: 3 erabatekoak, 5 Europan, 3 Espainian, eta 3 Euskal Herrian. Guztira, 14 estreinaldi.

Gainera, dFERIAk bere aletxoa jarri du 2009an **2016an Donostia Europako Kultura Hiriburu** izateko bidean. Alde horretatik, nabarmen agertu da Poloniako **Gdansk eta Lublin** hiriekiko lankidetza, **bi konpainia poloniar** izan baitira ferian. Etorkizunean, lankidetza hori beste ekimen batzuetara ere hedatuko da Polonian, euskal eta poloniar kudeatzaile eta sortzaileen artean.

**Euskal Feria.** Euskadiko antzerki eta dantza konpainiek **programazioaren % 38,89** osatu dute. Alegia, dFERIA euskal sorkuntzaren aldeko apustua ere egiten du, bidezkoa denez. Erakusleihoa gara, eta hemengo konpainiak horretaz balia daitezen nahi dugu.

**Jarduera paraleloak.** 2009ko edizioan ere, feriaren erakargarri bat izan dira edukien askotarikoari esker, eta mota askotako ikus-entzuleak bultzatu dituzte parte hartzera. Dantzako Profesionalen Elkartearen lankidetzari esker, atal honetan kalitatearen I+G+B izan da, bai eta latinoamerikarren lankidetzari esker ere ITINERARTEren bidez.

Etorkizunerako, egitasmoari egokitzen zaion diru-aurrekontua bermatzea eta ikus-entzuleak aretoetara erakartzea dira giltzarriak, 2009ko edizioan atzerakada handia izan baita.





# Literaktum

**LITERAKTUM 2009**ren edizioa astelehenarekin hasi zen, maiatzaren 25ean, **Ernest Lluch Kultur Etxean, *Eleberri grafikoari buruzko mahai ingurua***rekin. Honako hauek hartu zuten parte: **Borja Crespo**, azken urteetan Donostiako Komiki Jardunaldietan lankide dena, Getxoko Komiki Aretoko zuzendaria, gidoilaria, errealizadorea…, eta **Félix Romeo,** bost urtez TVEko *La Mandrágora* kultura programa zuzendutakoa, eta Radio 3, Radio Nacional de España eta ABCko kolaboratzailea, besteak beste. Solasa **Juan Manuel Díaz de Guereñu** Deustuko Unibertsitateko irakasle eta euskal komikiaren aztertzaileak moderatu zuen. Hainbat kontu agertu ziren gai honen inguruan: eleberri grafikoa argitaletxeen "asmakizuna" ote den, salmentak hobetzeko, ala beren izate benetakoa duen generoa den.



Maiatzaren 26an, asteartearekin, **Okendo**n, **Anne Perry** idazle ingelesa izan genuen. Jende asko bildu zuen, eta oso solasaldi bizia izan zen haren azken eleberriaren inguruan, *No dormiremos,* bai eta obra osoaren inguruan ere. Best-seller-en autorea izateaz gainera harago doala frogatu zuen, eta Britainia Handiak XIX. mendearen hondarraldean zituen arazo sozial, ideologiko, politikoetan eta kultura giroan sakontzen duela, pertsonaiei sakontasun handia emanez eta, hartara, viktoriar unibertso konplexua ezin bikainago agertuz.



Hilaren 27an, asteazkenarekin, **Liburutegi Nagusia**n, **Jabier Muguruza**ren solasaldia musika konposizioaren literatura alderdiaz. Muguruzak bere ikuspegi berezi eta aberatsa agertu zuen kanten konposizio prozesuari buruz. Oso iritzi-truke interesgarria izan zen.

Maiatzaren 28an, ostegunarekin, **Casares-Tomasene Kultur Etxea**n, ***Kultura gaztea Errumanian*** gaiaren inguruko ekitaldiak izan ziren: solasaldian **Horia Barna**k (ministro kontseilaria, Madrilgo Errumaniar Kulturaren Institutuko zuzendaria) eta **Claudio Komartin** errumaniar poeta gazteak parte hartu zuten. Gaiari ekin aurretik, Corneliu Porumboiuren ***Liviuren ametsa*** (2004) film laburra eman zen. Musika eta jaki errumaniarrak entzun eta dastatzeko aukera izan zen arratsaldean.



**Liburutegi Nagusiko Poesia Tailerra**k, hilaren 29n, ostiralarekin, **Olvido García Valdés** izan zuen gonbidatu, 2007ko Espainiako Poesia Sari Nazionala *Y todos estábamos vivos* lanagatik. Autoreak poesia idazteari buruzko zenbait gogoeta partekatu zituen ikasleekin. Berak aukeratutako poemen bidez, tekniken adibideak eman zituen.

Ohi bezala, jaialdia **Loiola**n amaitu zen, maiatzaren 30ean, larunbata, **Poesia Errezitaldia**rekin. Oraingo honetan, **Olvido García Valdés, Aritz Gorrotxategi** eta **Claudiu Komartin** izan ziren Benartegi baserriko zelaietan, Urumea ibaiaren ertzean. Errezitaldiaren ondoren, *Gaingsbourg: gainbegiratuz* musika egitasmoa aurkeztu zen bertsio akustikoan, **Juancar Landa**k zuzendua.



Horrela amaitu zen Literaktum-en 2009ko edizioa. Beste pauso bat izan da proposamen gune eraberritzailea, literaturarekin eta literaturari lotutako diziplinekin zerikusia duten gaientzako topalekua eta gogoeta lekua sortzeko asmoan.

# hemen gaude
# estamos aquí

**A. DONOSTIA KULTURA**
Harrera - Zuzendaritza
Recepción - Dirección
Reina Regente, 8 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**B. DONOSTIA KULTURA**
Bulegoak - Oficinas
Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**C. Casares - Tomasene**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

**D. Altza**
Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

**E. Ernest Lluch**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919 • amara@donostia.org

**F. Larrotxene**
Intxaurrondo kalea, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

**G. Intxaurrondo Berri**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

**H. Loiola**
Aralar kalea, 17
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

**I. Lugaritz**
Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

**J. Okendo**
Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

**K. Egia**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

**L. Liburutegi Nagusia
Biblioteca Central**
Alderdi Eder, z/g • Tel.: 943 481488
liburutegia_alderdieder@donostia.org

**M. Liburutegi Nagusia,
Haur Saila.
Biblioteca Central,
Sección Infantil.**
Fermín Calbetón, 25 • Tel.: 943 481999
haurliburutegia@donostia.org

**N. Antzoki Zaharra
Teatro Principal**
Kale Nagusia / Calle Mayor, 3
Tel.: 943 481970 • taquilla@donostia.org

**O. Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinako Errepublika,1
Tel.: 943 481160 • victoria_eugenia@donostia.org

**P. San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza, 1
Behin behineko bulegoak / Oficinas provisionales:
Andereño Elbira Zipitria, 1
Tel.: 943 481580 • santelmo@donostia.org

**Q. Historiaren Etxea
Casa de la Historia**
Motako Gaztelua / Castillo de la Mota, Urgull
Tel.: 943 428417 • santelmo@donostia.org




**donostiakultura.com**
San Sebastián, ciudad de la cultura

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016